



Gida didaktikoa
**PENTSAMENDU KRITIKOA
ETA DISKURTSO UKATZAILEEN PREBENTZIOA
GAZTEEN ARTEAN.**



Gida didaktikoa:
Hezkuntza-eragileak.



Argitaratzailea: **30** **InteRed**
HEZKUNTZA ERALDATZAILEAREN ALDE

**Gida didaktikoa. PENTSAMENDU KRITIKOA
ETA DISKURTSO UKATZAILEEN PREBENTZIOA
GAZTEEN ARTEAN.**

Egilekidea: Tania Martínez Merlo eta Amaia Herrero Oiárzabal.

Maketazioa: Joly Navarro Rognoni.

ilustrazioak: Joly Navarro Rognoni. www.jolylustra.com

Argitalpen: InteRed

www.intered.org

Lehen argitalpen: 2022ko uztaila

Data: 2022ko uztaila: Julio de 2022

ISBN: 978-84-121198-4-8


InteRedek hezkuntza eraldatzailearen alde egiten du apustu, eta pertsona guztien parte-hartze aktiboa eta konpromisoa sustatzen du justiziaren, generoparekidetasunaren eta gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren alde.

Argitalpen hau “Herritartasun Global, kritiko eta aktibo baten alde, Covid-19ak eta krisi sistemikoak eragiten duen egungo garapen-eredua eraldatzeko” proiektuaren barne dago, eta Garapenerako Espainiako Nazioarteko Lankidetzako Agentziaren (AECID) finantzaketa jaso du. Edukiaren erantzukizuna InteRedena da soilik, eta ez du zertan AECIDen iritzia islatu.

Honako hauen finantzaketarekin:



Licencia Creative Commons:



ESKER ONAK:	6
01. SARRERA.	8
02. GAZTEENGANA HELTZEKO GAKOAK.	10
2.1 Kanpora helduntasunkeria.	12
2.2 Sare Sozialak erabiltzen ditugu.	12
2.3 Haien erreferenteak ezagutu eta aipatu egiten ditugu.	14
2.4 Euren hizkuntzan hitz egiten dugu.	14
2.5 Haien larruan jartzen gara.	15
2.6 Konfiantza eta segurtasun giroa sortzen dugu. Taldea sortzen dugu	15
Jarduerak	17
03. ABIAPUNTUA ETA HELMUGA: PENTSAMENDU KRITIKODUN GAZTEAK ETA HERRITARTASUN GLOBALA	20
Jarduerak	22
04. NOLA JOKATU NEGAZIONISMOEN AURREAN?	24
4.1 Adi, negazionismoak datoz eta.	25
4.2 Zer dira gorroto- diskurtsoak eta negazionismoak?	32
4.2.1 Gorroto diskurtsoak.	32
4.2.2 Gorroto-diskurtsoen formula.	33
4.2.3 Gorroto-diskurtso nagusiak.	34
4.2.4 Negazionismoa- definizioa.	36
4.2.5 Nola zabaltzen dira diskurtso horiek?	38
4.2.6 Sare sozialen polarizazioa eta influenceren rola negazionismoen hedapenean.	40
4.2.7 Online gorrotoa eta negazionismoa ahalbidetzen dituzten elementuak.	43
4.3 Noraino heltzen da adierazpen-askatasuna?	46
Jarduerak	50
05. GENERO-INDARKERIAREN NEGAZIONISMOA.	62
5.1 Haien argudioak desmuntatzen.	64
5.1.1 Teoria negazionista bat sortzen dute genero-indarkeriaren inguruan.	65
5.1.2 Ukatu egiten du emakumeak bazterkeria-egoeran bizi direla gizonekin alderatuta.	70
5.1.3 Emakumeen kontrako indarkeria ukatzen du.	72
5.2 Sartzen ari da genero-indarkeriaren diskurtso negazionista gazteen artean?	75
5.3 Bulo eta negazionismo matxista nagusiak.	77
Jarduerak	82
06. KLIMA-ALDAKETAREN NEGAZIONISMOA.	86
6.1 Zeintzuk dira klima-aldaketaren eta berotze globalaren arrazoiak eta ondorioak?	88
6.2 Klima-aldaketa geldiarazteko egin ditzakezun ekintza pertsonalak eta globalak.	92
6.3 Nork ateratzen du onura klima-aldaketaren negazionismotik?	94
6.4 Klima aldaketaren negazionismoaren adibiderik ohikoenak .	95
Jarduerak	98
07. COVID - 19AREN NEGAZIONISMOAK.	100
7.1 Infodemia.	100
7.2 Nork ateratzen du onura COVID – 19aren negazionismotik?	102
7.3 COVID-19aren negazionismoaren ohiko adibideak.	103
08. GAZTEEN AKTIBISMOA BULTZATZEN.	104
8.1 Zer egin dezakegu? Aktibismo motak.	105
8.1.1 Kaleko aktibismoa.	105
8.1.2 Ziberaktibismoa.	106
8.2 Erreferente feministak eta klima-aldaketaren aurkako erreferenteak.	109
8.3 Jardunbide egokiak.	113
Jarduerak	114
09. AMAIERA.	118
10. ERANSKINAK.	120



Amaiaren esker ona:

Eskerrik asko InteRedi gida hau egiteko nigan jarritako konfiantzagatik, eta, bereziki, Tania Merlori, ezinbesteko “bidelaguna” izen delako.



Eskerrik asko negazionismoak hausteko eguneroeuren ekarpena egiten dute pertsoneri, eta, bereziki, feministei, lan nekaezinagatik, nahiz eta euren bizitza pertsonal eta profesionalean ondorioak dituen.



Taniaren esker ona:

Mila esker, Amaia, pilatutako eta partekatutako jakinduriagatik.

Mila esker, Joly, pazientzia handiagatik eta ukitu artistikoagatik, orriz orri jarraitzera animatzen gaituelako.

Eskerrik asko, Elena Alfageme, etengabeko laguntzagatik, ikuspegi zabalagatik eta ekarpen bikainengatik.

Eskerrik asko gida hau egiten lagundu diguten pertsona guztiei, eta bereziki Willy Aguadori. Eskerrik asko zuen aurretiazko lanekin inspirazioa eman didazuenei: María Monjas Carro, Teresa Pineda eta Isa Duque.



Eskerrik asko nire auzoko eta bizitzako emakume aktibistei.

Eskerrik asko hezkuntzan gazteekin lan egiten duten pertsona guztiei, egunero topatzen dituzten zailtasunak partekatzeagatik, indarkeria matxistak eta klima-aldaketa bezalako gai garrantzitsuak mahai gainean jartzeagatik. Egunero hezten jarraitzen dute, mundu hobea lortzeko.



SARRERA

InteRed garapenerako GKE bat da, Institución Teresiana erakundeak sustatutakoa. Hezkuntza eraldatzaile baten alde egiten du lan, eta pertsona guztiak aktiboki eta gogotsu parte hartzera bultzatzen ditu, hainbat gauza lortzeko: justizia, generoberdintasuna, eta gizarte- nahiz ingurumen-jasangarritasuna.

Posizionamendu horretatik, argi dugu iritsi behar dugula indarkeria matxistak betikotzen dituen gizarte-imaginarioaren errora eta egiturazko arrazoiak, eta, horretarako, geldiarazi egin behar dugu egun hauetan zabaltzen ari diren gorroto-diskurtsoak eta argudio negazionistak sustatzen ari diren atzera-buelta. Ekofeministotik, lobbyen eta botere politiko eta ekonomiko handien aurka gaude, hutsaldu egin nahi baitute klima-aldaketari aurre egiteko borrokaren eta neurri zehatzen garrantzia.

Metodologia aktibo eta parte-hartzailearen alde egiten dugu, aukera emango baitigu ezagutza, hausnarketa, konpromisoa eta mobilizazioa modu kolektiboan erakitzeko, 2030 Agenda eta 17 GJHak aintzat hartuta. InteRed Fundazioak 30 urte daromatza genero-berdintasunaren eta hezkidetzaren alde egiten, eta hainbat kanpaina egin ditugu. Azkenak, Toca Igualdad izenekoak, indarkeria matxistak saihestea du helburu.

Kezkatuta gaude, gaur egun zabaltzen ari direlako, berriro, pertsona jakin batzuen aurkako gorrotoan (migratzaileak, LGT-BIQA+ kolektibokoak, emakume feministak...) eta ageriko errealitateen ukazioan oinarritutako planteamenduak (generoindarkeria edo klima-aldaketa).

Gorroto-diskurtsoak eta negazionistak ez dira fenomeno berriak. Historian zehar mota horretako diskurtsoak agertu dira gerrekin, ekonomia-krisiekin, pandemiekin, eta abarrekin lotutako gizarte-krisien testuinguruetan. Gainera, lotura dute autoritarismoarekin, militarismoarekin, arrazismoarekin edo erlijio estremismoarekin. Hala ere, orain askoz hedatuago daude, alde batetik, Interneten eta sare sozialen ondorioz, eta, bestetik, zilegitasun publikoagatik, presentzia baitute parlamentuetan eta hedabideetan.

Egoera horren aurrean, ezinbestekoa da mota horretako mezuak desmuntatu eta geldiarazteko esparru berriak ezartzea; izan ere, kaltegarriak dira berdinzalea izan nahi duen eta pertsonen giza eskubideak inolako diskriminaziorik gabe bermatu nahi dituen gizarte ororentzat. Gida honen helburua da hezitzaileei tres-

na eta baliabideak ematea, gai horiek gazteekin lantzeko. Funtsezkoa da inguruko errealitate eta konplexutasunez jabetzea, gorroto-diskurtsoak eta negazionistak ez erreproduzitzeko, eta diskriminazioaren eta gizarte-bidegabekeriaren aurrean jokatzera anima daitezen.

Hezitzaileei laguntzen saiatzen gara gazteen artean pentsamendu kritikoa sustatzen, eta proposatzen dugu “Z belaunaldia” izeneko aktibismoaren ekintzara igarotzen animatzea.

Horrekin batera, tresnak ematen saiatu gara, erabilgarriak guztiontzat, eguneroko bizitzan gorroto-diskurtsoei eta argudio negazionistei aurre egiteko, kasu askotan gatazkak sortzen baitituzte gure inguruan; beste askotan gure ekintza pedagogikoak blokeatzen dituzte.

Gida honek InteRedek urte askotan indarkeria matxisten prebentzioaren, ekofeminismoaren, zaintzen pedagogiaren eta hezkuntza eraldatzailearen esparruan egin duen lana osatzen du, hone-lako hezkuntza-proposamen indartsuekin: “Jóvenes Actuando con Cuidados. Guía

para la movilización de jóvenes”, “Guía para la movilización social”, “Sal a la vida”, Toca Igualdad kanpainaren erakusketa, gida didaktikoa eta materialak, eta garapenerako hezkuntza eta Herritartasun Globala sustatzen dituzten baliabide ugariarekin.



GAZTEENGANA HELTZeko GAKOAK.

Gida hau pentsatuta dago hainbat arlotan gazteekin lan egiten duten pertsonentzat, eta, bereziki, hezkuntza ez formalaren esparruan.

Proposamenak gazteekin gai oso sentikorrek, eta, batzuetan, polemikoak ere jorratu nahi dituzenez eta, gainera, ingurune intimoetan, errailetan edo pertsonen nortasunari buruzko gaietan sartzen denez, bereziki garrantzitsua da estrategia zehatz batzuk aintzat hartzea, “Z belaunaldiarengana” hurbiltzeko eta eragin errealak izateko.

Gertutasuna eta konfiantza-giroa lortu nahi dira, matxismoez, arrazismoez, indarkeriez eta gaur egungo gai garrantzitsuekiko posizionamenduz hitz egiteko. Hori enpatiarekin egitea da asmoa, gazteen motibazioa pizteko hainbat estrategia erabilita, parte har dezaten eta gure saioetan inplika daitezten, eta, horrez gain, ikus dezaten pertsona guztiok garelako beharrezkoak gizarte justu eta berdinzaleagoa lortzeko.



2.1. kanpora adultismoa



Zer da adultismoa? Helduen esperientzia beti eta automatikoki jotzea gazteena baino baliagarriagozat.

Gazteekin hitz egiteko orduan, lehenik eta behin, alde batera utzi behar ditugu adinez nagusiagoa izateak ematen dizkigun nagusitasun faltsuaren posizioak. Beharrezkoa da gazteek ematen dituzten ikuspuntuei balioa ematea.

Haien iritziei garrantzia eman behar diegu, eta aintzat hartu behar ditugu haien iturri eta esperientziak.

BERDINAK GARA

2.2. Sare sozialak erabiltzen ditugu

Saiatu behar dugu ulertzen nondik hartzen duten gazteek euren jarrera, zein den haien biziesperientzia eta zein faktorek duten eragina. Horretarako, haien sozializatzeko moduak eta espazioak ezagutu behar ditugu, bai bizitza errealean eta bai birtualean (sare sozialak) ere.

Belaunaldi-arrakala ez da fenomeno berria, baina egia da gaur egun indar handiagoarekin bizi dugula, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) hedapenak ekarri duen iraultza teknologikoaren ondorioz. Gazteentzat espazio natural eta erakargarria izan daitekeena artifiziala izan daiteke helduagoentzat; horientzat ez da fidagarria, arrotza baizik, eta ez dira erraz mugitzen bertan. Horrek ukatzea eragin ohi du, baita sare sozialei buruzko aurreiritziak ere, eta, ondorioz, gure diskurtsoa aldendu egiten da ingurune horretatik.

Hala ere, aintzat hartuta 16 eta 29 urte arteko gazteek, batez beste, 2 eta 3 ordu artean ematen dituztela sare sozialetan konektatuta eta beste horrenbeste uneko mezularitzan eta Interneteko beste zerbitzu batzuetan, errazena da sare soziale-tatik eta ingurune digitaletatik hitz egitea, haien arreta erakartzeko eta gure proposamen eta diskurtsoak interesarekin entzuteko.

Gainera, proposatzen dugu pantailen gainkarga hori konpentsatzea Interneten erabilera informatu eta kritikoarekin, sareak erabili gabe parte hartzeko, elkarrizketarako eta hausnarketarako jarduerekin, eta gorputz-adierazpena sustatzeko eta gorputza eta emozioak lantzeko dinamikekin.

GOGORATU:

Gomendagarria da sare sozialak erabiltzea, ingurune digitalen formatuak eta mota guztietako IKT baliabideak, material eta proposamen didaktikoak sortzeko eta jarduera eta adibideak proposatzeko.



2.3. Haien erreferenteak ezagutu eta aipatu egiten ditugu

Ez dakit ezagutzen duzuen “La Psicowoman”. Konferentzia batean azaldu zuen “La isla de las Tentaciones” programako pertsonaien analisia erabiltzen zuela maitasun erromantikoaren mitoak lantzeko. Saioa hasi bezain laster esaten zuen programaz mintzatuko zela, eta horrela lortzen zuen talde guztiaren arreta bereganatzea. Gainera, programak material ugari ematen zituen landu nahi zituen mitoak desmuntatzeko. Adibide horrek erakusten du gazteei euren erreferenteei buruz hitz eginda lortzen dugula haien mundura eta interesetara gehiago hurbiltzea, eta gure mezua errazago iristen da.

Jakina, gazte guztiak ez dira berdinak, eta ez dituzte erreferente berak; testuinguru orok du berea, eta hezitzaile bakoitzaren esku dago hautematea zein pertsonaia publikok duen eragina taldean, hori modu hezitzailean baliaitzeko, beti ere talde bakoitzaren barruko desberdintasun indibidualak errespetatuz.

Erreferenteak topatzen ditugu modan, kirolean, musikan, telebistan eta zineman, baita sare sozialetan ere, influencer eta youtuber direlakoekin, eta bideo-jokoetan ere bai.

JARDUERA 1

Ikus 17 orrialdean.

NOR DIRA TOP-TOP?

2.4. Euren hizkuntzan hitz egiten dugu

Termino teoriko edo sofistikatuegiak erabili ordez, euren hiztegia eta hitz egiteko modua erabiltzea; lagungarria izango da gurekin lan egiten duten gazteengana hurbiltzeko, eta gure mezua errazago helduko zaie.



Aprobetxatu zure gazte-taldean partekatzen dituzten figura eta erreferenteak, eta sortu landu nahi dituzun gaiei buruzko jarduerak, eztabaidak eta ikerketa-proiektuak.

“Hemen esaten dena hemen geldituko da”

2.5. haien tokian jartzen gara

Haien tokian jartzeko gai izan behar dugu. Gazteak ginenean egoera berdinak bizi genituen gure familietan. Ziurrenik, gure janzkera, entzuten genuen musika, gure lagunekin bisitatzen genituen tokiak, hitz egiteko modua, eta abar ez ziren gure inguruko helduen gustukoak. Gure nerabearoan honelako iruzkinak entzuten genituen: “gazteek errespetua galdu dute”, “ez dute baliorik”, “ni adin horretan lanean ari nintzen”, “askoz arduratsuagoa nintzen”...

Aurretik adierazi dudan moduan, empatia oso tresna eraginkorra da, eta lagungarria izango da gazteen adinarekin izan genituen esperientziez mintzatzea haien esperientziez hitz egiten dugunean, baina antzekotasunak bilatu behar ditugu, eta ez desberdintasunak. Interesgarria da gure bizitzako adibideak jartzea.

Zuri buruzko gauzak kontatzen badituzu, haiek errazago esango dute egia, eta errazago sakonduko dituzte gai jakin batzuk.

ENPATIA SORTU

2.6. konfiantza- eta segurtasun-giroa sortzen dugu. Taldea sortzen dugu

Erronka da espazio bat sortzea, epaituak izan gabe, gazteek seguru daudela senti dezaten eta beharrezko konfiantza izan dezaten haien pentsamendu, zalantza eta beharrak adierazteko.

Oso garrantzitsua da taldearen kohesioa eta konfiantza sustatu eta lantzea, pertsona bakoitzak jakin dezan taldean esango dena bertan geldituko dela, ez dela beste espazio batean erabiliko. Taldeko kohesio hori bermatzen laguntzen duten dinamika ugari daude, eta interesgarria da hasieran lantzea, loturak sortzeko eta tarteka aplikatzen jarraitzeko hemen aurkeztzen dugun programarekin. “Taldea egitea” errazagoa da gorputza eta emozioak lantzeko jarduerekin, eta horiek gomendatzen ditugu gidan proposatzen diren beste hausnarketa-proposamen burutsu batzuekin batzeko.



JARDUERA 2
Ikus 18 orrialdean.

“NOLA IKUSTEN DUGU GEURE BURUA, NOLA IKUSTEN DUTE GAINERAKOEN”.

JARDUERA 3
Ikus 19 orrialdean.

“ESTATUA EMOZIONALA”

GAIAREN INGURUAN IRAKURTZEKO, IKUSTEKO ETA SAKONTZEKO BESTELAKO BALIABIDEAK

- **IRAKURKETA:** [“OK, Boomer” esaldia ez entzuteko hitzak](#)
- **IRAKURKETA:** *Z belaunaldira hurbiltzea. Isa Duque.*

ONARRIZKO HIZTEGIA:

MOOD (aldarte ingelesez) = gure aldartea adierazteko erabiltzen da; mood triste/alaia dut...

STALKER (jazarlea ingelesez) = kuxkuxeroa, kuxkuxean ibiltzea. Adibidez, pertsona bat norbaiten Instagram profilean sartzen bada eta argazki guztiak ikusten baditu.

CRUSH (maitemintzea ingelesez) = Crush bat dut norbaitekin... Maitasun platonikoa, baina ez du zertan izan ezinezkoa.

SHIPPEO (relationship hitzetik dator) = telesail, film, komiki edo lehiaketa baten barruan balizko bikoteak bilatzea da. Adibidez; ‘Aiteda’, Aitana eta Cepedaren arteko shippeoa, biak Operación Triunfo programako lehiakideak; biek zuten bikotekidea kanpoan.

CRINGE (auzo-lotsa sentitzea) = cringe emateak esan nahi du norbaitek auzolotsa ematen dizula.

GOALS (helburuak ingelesez) = goals bikoteak, hau da, bikote perfektuak. Zoriontasuna erakusten dute sare sozialetan, eta inspirazio-iturri bihurtzen dira besteentzat; izan ere, idilikoa da haien harremana.

(beti zabaltzen ;)
Gaiari buruzko [Tiktok](#) hau ikus dezakezu

1. ¿NOR DIRA TOP-TOP?

● **Helburua:**

- Aztertzea taldearen erreferente birtualak eta haien sareetako gorroto-diskurtsoak eta negazionistak.

● **Beharrezko baliabideak:**

Ordenagailua, proiektorea, pantaila eta Interneteko konexioa.

● **Garapena:**

Taldetan banatuko gara, eta eskatuko diegu egiteko normalean erabiltzen dituzten sare sozialen eta sare bakoitzean gehien jarraitzen dituzten pertsonen zerrenda bat.

Ondoren, partekatu egingo dugu talde bakoitzaren zerrenda. Arbelean idatziko ditugu, eta eskatuko diegu azaltzeko zergatik gustatzen zaizkien sare horiek eta zergatik jarraitzen dieten pertsona horiei. Sare sozial eta pertsona bakoitzaren azpian esaten dituzten gako-hitzak idatziko ditugu.

Ondoren, influencer horien profilean sartuko gara, eta partekatzen duten edukia ikusiko dugu. Une horretan, hezitzaileak hauteman behar dituzte gorrotoa, pertsona jakinen diskriminazioa, sexismoa, antifeminismoa edo diskurtso negazionistak sustatzen dituzten edukiak, eta ondoren taldeari planteatu.




2 - 3 ORDU

● **Aukerak:** Jarduera bi egunetan egin daiteke, hezitzaileak denbora izan dezan edukiak aztertzeko eta bigarren egunean adibideak prest eramateko.


● **Iturria:**
lan propioa

2. NOLA IKUSTEN DUGU GEURE BURUA, NOLA IKUSTEN DUTE GAINERAKOEK

● **Helburua:**



● **Beharrezko baliabideak:**



● **Garapena:**

Pertsona bakoitzari hiru ohar itsasgarri banatuko dizkiogu, eta bakoitzari eskatuko diogu letra handi eta argiekin idazteko taldeko pertsonen artean ikusten dituen hiru eta sei gaitasun eta/edo trebetasun artean. Horrekin batera, eskatuko diegu nota pribatu batean idazteko nor bere gaitasunak.

Musikaz lagundurik, taldeari eskatuko diogu espazioan zehar ibiltzeko 5-8 minutuz, eta oharrak gainerakoen bizkarrean itsasteko, gaitasunak emanez. Oraindik astirik badago, oharrak idazten jarrai dezakete talde guztiari banatzeko. Garrantzitsua da hau adieraztea: "inor ez dadila gelditu oharrak gabe, guztiok ditugu gaitasunak".

Musika isiltzen denean, nor bere oharrak jasoko ditu, eta adiskideek emandako gaitasunak irakurri eta egiaztatuko dituzte. Beste 3-5 minutuz ipiniko dugu musika, eta pertsona bakoitzari eskatuko diogu gorputzarekin adierazteko nola sentitzen den. Azkenik, jolasarekin nola sentitu garen adieraziko dugu, eta alde handiak topatu ditugun ala ez gainerakoez esaten digutenaren eta nor bere buruaz pentsatzen duenaren artean. Oharrak altxor gisa gordetzeko eskatuko diegu.



20 / 30 MINUTU

Iturria: lan propioa.

3. ESTATUA EMOZIONALA



● **Helburua:**

Taldeko kohesioa eta konfiantza sustatzea. Saioa irekitzeko eta proposamenen artean erritmoa aldatzeko, oso interesgarriak dira dinamika hori eta sor daitezkeen beste aldaera batzuk.

● **Beharrezko baliabideak:** Espazio handi bat.

● **Garapena:**

Espazioan zehar beroketa egitea da, gurutzatzen ditugun pertsonen begietara begiratuz, eta txalo egingo dugu aginduak emateko: txalo egitean, espazio osoa hartuko dugu; txalo egitean, postura alaia jarriko dugu; txalo egitean, postura triste jarriko dugu; txalo egitean, botere-postura jarriko dugu; txalo egitean, otzantasun-postura jarriko dugu, etab.



10 / 15 MINUTU

Iturria: [Toca Igualdad. Guía para la movilización social. InteRed.](#)



03

ABIAPUNTUA ETA HELMUGA:

Pentsamendu kritikodun gazteak eta Herritartasun Globala.

Hezkuntza eraldatzailearen bidez, InteRedek herritartasun global kritikoa, arduratsua eta konprometitua eraikitzearen aldeko apustua egin du, maila pertsonalean zein kolektiboan. Tokiko eta munduko errealitatearen eraldaketarekin, azken finean, aukera izango dugu mundu justuagoa, bidezkoagoa eta aniztasunarekin eta ingurumenarekin arduratsuagoa izango dena eraikitzeko, pertsona guztiok libre eta egoki garatzeko.

Hezkuntza-erronka berri baten aurrean gaude: ez da nahikoa hezkuntza eraldatzailetik testuinguru soziokulturalari erreparatzea; hezkuntza-prozesuetan mundu globalaren ikuspegia sartu behar dugu, eta ikasleak prestatu behar ditugu Herritartasun Globalak eguneroko bizitzan inplikatzeko dituen erantzukizun eta konpromisoarekin jokatzeko.

Jarduera hau proposatzen dugu, Herritartasun Globalaren begiradaren bidez gure taldeekin lantzeko. Ildo horretan sakontzen jarraitu nahi badugu, InteRedek material ugari du [webgunean](#).



4. ¿ZER DUTE KOMUNEAN LARANJA BATEK, FUTBOL-BALOI BATEK ETA LUR PLANETAK?

● Helburua:

- Pentsamendu kritikoa bultzatzea; horretarako, gure bizimoduak naturan eta beste pertsona batzuen bizitzan maila globalean duen eraginaren arteko lotura identifikatuko dugu.

● Beharrezko baliabideak:

Bideoa [Zer dute komunean laranja batek, futbol-baloi batek eta Lur planetak?](#) Proiektorea, pantaila edo arbel digitala.

● Garapena:

1. urratsa: Bideoa proiektatu. Ikusi bitartean, hiru txartel banatuko ditugu, “pentsatzen dut” / “sentitzen dut” / “neure buruari galdetzen diot” errutina erabiliz, eta ikasleei eskatuko diegu idazteko bideoari buruzko iritzi, galdera eta sentimenduak.

2. urratsa: Txarteletan idatzitakoari buruzko eztabaida. Eztabaida piztuko dugu galdera orokor batzuekin: nolakoak dira pertsonen eta naturaren arteko harremanak bizi garen munduan?, zein rol du gutako bakoitzak sistema honetan?, norena da gertatzen ari denaren errua?, zurea da?, zer konponbide proposatzen dira?, ezagutzen zenuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda?, nola lagun dezakezu GJH bakoitza lortzen?



1,5 ORDUA

Gai horri buruzko jarduera gehiago topa ditzakezu gida didaktiko honetan: [“Sal a la vida. Transforma el mundo”](#), [InteRedena](#).



GAIAREN INGURUAN IRAKURTZEKO, IKUSTEKO ETA SAKONTZEKO BESTELAKO BALIABIDEAK

Bideoa: Ciudadanía global para transformar nuestro mundo

Bideoa: Cooperación o muerte

Bideoa: La historia de las cosas



NOLA JOKATU NEGAZIONISMOEN AURREAN ?

4.1.

PRESTATU, NEGAZIONISMOAK DATOZ ETA.


Irizpide eta estrategiak diskurtso negazionisten aurkako elkarrizketa eraginkorrerako¹.

¹. Argitalpenean zehar, diskurtso eta argudio negazionistez mintzatuko gara, baita diskurtso horiek erreproduzitu edo zabaltzen dituzten pertsoez ere. Nahiz eta maiz erabiltzen diren, "negazionistak" edo "persona negazionistak" terminoak ekiditen saiatu gara; izan ere, uste dugu etiketak jartzea dela eta pizten lagunduko genukeela diskurtso horiek sustatzen duten liskarra, baita "gu besteen aurka" posizionamendu okerraren alde egitea ere..

GAKOA 1. UNE ETA TOKI EGOKIAK DIRA?

UNE HONETAN:


- lasai hitz egin dezaket?
- Beharrezko baliabideak ditut? toki egokia da?
- Talde osoarekin hitz egiten dut? Beste une batean?
- Une honetan, nola dago beste pertsona? (urduri, haserre, nekatuta, harkor)



Ez badira baldintzak betetzen, zergatia azalduko dugu, eta proposatuko dugu elkarrizketa beste une baterako uztea, beti une hori zehaztuta.

GA KOA 2. ERRESPETUZ

- Baloratu beste pertsona.
- Saiatu beste pertsonaren errealitatea ulertu eta aitortzen.
- Saiatu identifikatu haren egoera emozionala (beldurra, haserrea...)
- Entzun haren argudioak, eta zerbait gehiago.
- Erabili ahots-tonu lasaia, ironiarik gabe eta benetako interesa erakutsiz.
- Ekidin akusazioak.
- Ekidin eraso pertsonalak.



GA KOA 3. ENTZUNEZ


Entzun haren argudioak: nahiz eta ez gustatu entzuten duguna, beste pertsonak eskubidea du bere iritzia emateko.

LERRO ARTEAN IRAKURRI:

¿Zeren beldur da? Zer gertatu zaio hori pentsatzeko? Non entzun ditu argudio horiek?... Baliteke pertsona horrek edo bere inguruko norbaitek ukatzen duen errealitatearekin lotutako egoera gatazkatsu bat bizi izana. Adibidez, dibortzio konplikatu baten ondorioz pentsa dezake justiziak beti ematen diela arrazoia emakumeei, gizonak diskriminatzen dituela eta azken horiek beti kaltetuta ateratzen direla.

GA KOA 4. ADOSTASUN- ETA ENPATIA-PUNTUA

Egin bat bere aurretiazko sinesmenekin, adostasun-elementu bat topatuz (ez du zertan errealia izan):



ADOSTASUN HORRETATIK ABIATUTA, SAIATU HAREN ARGUDIOAK MODERATZEN

GA KOA 5. "ULERTZEAREN ILUSIOA"

Egia esan, jendeak uste duguna edo dirudiena baino askoz gutxiago daki, euren muturreko iritzien arrazoiei dagokienez. Eror daitezela euren kontraesanetan, agerian uzteko euren diskurtsoa; horrek posizio moderatuagoetara eramango gaitu.

- Galdetu haren diskurtsoaren prozesu logikoari buruz: erraz eroriko da kontraesanetan.
- Galdetu azaldutako planteamendu bakoitzari buruz.
- Ekidin tonu ironikoak.
- Argudiatu gure posizioetatik, segurtasunez eta konfiantzaz.

Heldu eta hezitzaile gisa, gainera, adituak gara gure lanean. Ikasleek baino ezagutza eta esperientzia handiagoa dugu lantzen ditugun gaietan. Hori kontuan hartu behar dugu beti, baina ezin dugu eraso gisa erabili, ezta botere-posizio batean jarri ere; izan ere, gure aurka egingo du argudiatzeko eta konfiantza-harremana finkatzeko.

GA KOA 6. JARRI AGERIAN IRUZURRA

- Aditu faltsuak.
- Datuen hautaketa interesatua.
- Egin galderak.
- Iturrien falta.
- Animatu beste pertsona informazioa bilatzera.
- Jarri zalantzan orokortzeak.
- Adostu zein iturri diren zilegiak (estatu- edo mundu-mailako erakunde ofizialak).

Zergatik jotzen duzu fidagarri-gotzat iturri, txosten edo aditu hori? Ez duzu uste pertsona edo erakunde horrek bere interesak dituela baieztapen horiek egiteko?




GA KOA 7: DENAK EZ DU BALIO

Ez ditugu onartuko giza eskubideak urratzen dituzten eta gorrotoan eta indarkerian oinarritutako argudioak... Eztabaidak bide hori hartzen badu edo pertsonak ez baditu besteak errespetatzen, oihukatzen badu edo iraintzen badu, argi utzi, eta elkarrizketa itxi egingo dugu, berriro hausnartu arte.

- "Gure iritziak ere errespetua merezi du"
- "Esaten duzunak eta esateko moduak ere mindu egiten naute"

- "Agian ez zara konturatzen, baina iruzkin horiek mindu eta haserre-tu egiten naute. eskatzen dizut ez esateko hori nire aurrean".

"GIZA ESKUBIDEAK EZ DIRA EZTABAIDATZEN"



EZ UTZI PERTSONA BATI PARTE-HARTZE GUZTIAK BEREGANATZEN BILATU GURE ARGUDIOEN BABESA GAINERAKOEN ARTEAN.

GA KOA 8: LASAI EGONGO GARA

Ezin badugu geure burua kontrolatu, elkarrizketa itxi, eta beste une bat bilatuko dugu. "Hor utziko dugu; pentsatu egingo dugu, eta hurrengo egunean eztabaidatuko dugu, ados?"

Erabili tentsioa jaisteko teknikak:

- Bilatu konplizitatea beste gai baten bidez
- Erabili umorea
- Bilatu topaguneak
- "Argi dago momentuz ez garela ados jartzen. Agian oso burugorrorak gara, eta lasaiago pentsatu behar dugu"
- "Nik uste nuen munduko pertsona burugorrena nintzela, baina baliteke hala ez izatea, e?"
- "Aizu, zu politikari ona izango zinateke, guztiz nahasten ari naiz eta!"

GA KOA 9: ENTRENAMENDUA

Zenbat eta gehiago landu gure diskurtsoa eta estrategiak, orduan eta errazagoa izango da konbentzitzen saiatzea, aurretik ikusi ditugun tresnak erabiliz (lasaitasuna, entzutea, errespetua, ados jartzea...).

Behin eta berriro entzungo ditugu mekanismo negazionista berak, eta horren abantaila da gure argudioak alde aurretik presta ditzakegula.

Pixkanaka identifikatuko dugu zer den eraginkorra eta zer ez, gurekin lan egingo duten kolektibo edo pertsonen arabera.



4.2.

ZER DIRA GORROTO-DISKURTSOAK ETA NEGAZIONISMOAK?

4.2.1. Gorroto-diskurtsoak

Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen arabera, honela definitzen dira gorroto-diskurtsoak: "Pertsona edo pertsona-talde baten aurkako gorrotoa, umiliazioa edo mespretxua sustatu edo bultzatzea, baita pertsona edo pertsonatalde hori erasotzea, izena zikintzea, estereotipo negatiboak zabal-tzea, estigmatizatzea edo mehatxatzea, eta honako hauetan oinarritutako adierazpen horiek justifikatzea: arraza, kolorea, jatorri nazional edo etnikoa, adina, desgaitasuna, hizkuntza, erlijio edo sinesmenak, sexua, generoa, genero-identitatea, orientazio sexuala eta beste ezaugarri edo baldintza pertsonal batzuk". Gorroto-diskurtsoak gizartean onartutako aurreiritzietan oinarritzen dira, eta mundua-ren ikuspegi jakin batean finkatutako arauak betetzen ez dituenaren aurka egiten dute. Ondorioz, uko egiten dio aniztasunari, desberdintasunari edo disidentziari.

- Gorrotatutako pertsonen irudi sinplifikatu, puztu eta distortsionatu bat eraikitzen dute.
- Maiz boterea edo status quo-a osatzen ez duten pertsona eta/edo kolektiboaren aurka egiten dute.
- Etsaiaren figuraren bidez, gizarte-adostasun negatibo bat bilatzen dute. Gorroto-diskurtsoek gizarte-atxikipena bilatzen dute, arrazoiketa ekidinez. Partekatutako gorrotoak guztien adostasunaren ilusioa sortzen du.

JARDUERA 5
Ikus 50 orrialdean.

AURREIRITZIEN ITUA.



4.2.2. GORROTO-DISKURTSOEN FORMULA



ETSAIA SORTZEA

Noren aurrean babestu behar den; figura horrek irudikatuko du desberdina dena, mehatxua; "Haiek ez dira gu bezalakoak"




OROKORTZEA

"Latinoamerikako pertsona guztiak matxistak dira"; "musulmanak erlijio-estremistak dira"; ...



GIZAGABETZEA:

Ez badira pertsona berdintzat jotzen, askoz errazagoa da haien aurkako diskriminazioa eta indarkeria justifikatzea; horretarako, ohikoa da animalien izenak erabiltzea mespretxu gisa, adibidez arratoiak, zakurrak, izainak, etab.



ESTEREOTIPO ETA AURREIRITZIEN SORTZEA

"Ijitoek ez dute lan egin nahi"; "homosexualak promiskuoa dira"; "feministek gizonak gorroto dituzte"; "migratzaileak lapurtzera datoz"; ...



BELDURRA

Beldurra migratzaileek bertakoei lana kentzeari, euren erlijioa ezartzeari, homosexualak familia-eredu tradizionala suntsitzeari...



4.2.3. GORROTO-DISKURTSO NAGUSIAK

- **IJITOEEN AURKAKO JARRERA:** ijitoen aurkako arrazismoa da.
-
- **APOROFOBIA:** baliabiderik eta etxerik gabeko pertsonen errefusa.
-
- **ISLAMOFOBIA:** islamaren edo musulmanen aurkako aurreiritziak, gorrotoa edo beldurra.
-
- **LGTBIQfobia:** lesbianen, transexualen, bisexualen, intersexualen, queeren eta beste orientazio eta identitate batzuen errefusa.
-
- **XENOFOBIA:** beste herrialde edo kultura batzuetako pertsonen aurkako aurreiritziak, gorrotoa edo beldurra.
-
- **ARRAZISMOA:** pertsona edo pertsona-talde batek beste batzuk gorroto ditue-nean edo hobea sentitzen denean, ezaugarri desberdinak izateagatik; adibidez, azal-kolorea, hizkuntza, jaioterria, erlijioa... Xenofobiak ez bezala, arrazismoak ez du zertan oinarritu pertsonen jatorrian; adibidez, gure herrialdean jaio den eta azal zuria ez duen pertsona bat diskriminatzen denean.
-
- **SEXISMOA:** pertsonak diskriminatzea sexuan oinarrituta. Gizon eta emakumeek gizartean dituzten botere-harreman desberdinen ondorioz, misoginia da sexismoaren aldaera arruntena, hau da, emakumeen aurkako ukapena, gorrotoa edo diskriminazioa. Sexismoak irudikatzen duen munduaren ikuspegian, emakumeek gizonek baino balio txikiagoa dute.
-
- **MATXISMOA:** pentsamendu sexista praktikan jartzea. Jarrera, ekintza eta diskurtso horietan, gizonek dute boterea, eta emakumeak mendean daude.
-
- **POTOLOFOBIA:** Potolofobia kontzeptuak jarrera automatiko eta normalean inkontziente bat izendatzen du, eta gehiegizko pisua duten pertsonak diskriminatu eta gutxiesten ditu, bereziki emakumeak badira.

GORROTO-DISKURTSOEN ADIBIDEAK:

Participante 1
P1 Yo los tiraba al mar Comida para peces

Participante 2
P2 Recordad que son unos campeones, que son los mejores, que les aplaudimos por venir a este país saltado una valla

Participante 1
P1 Yo habría la llave del gas y los despiojaba

Participante 2
P2 Es mejor la lapidación... gran invento

Fuente: [Cadena Ser](#)

Quiero informar a todos los gitanos/rumanos.. Los radares de la DGT, tienen 2 kilos de cobre. Ahí lo dejo

Wall Street Wolverine
@wallstwolverine

¿Sabéis que privilegio creo que tenemos los hombres sobre las mujeres? Uno biológico y bastante importante: Estabilidad hormonal.

12:36 p. m. · 18 de febr. de 2019 · Twitter for iPhone

62 Retuits · 422 Agradaments

JARDUERA 6
Ikus 52 orrialdean.

ENPATIA-MAPA.



4.2.4. NEGAZIONISMOA - DEFINIZIOA:

Negazionismoaren definizio hedatuena Paul O'Shea autorearena da, eta, haren ustez, uko egitea da enpirikoki egiazta daitekeen errealtate bat onartzeari. Negazionismoak edo diskurtso negazionistak norbanako edo taldeko interpretazio erabat subjektiboetan oinarritzen dira, nahiz eta askotan zientifiko eta objektibotzat jotzen diren.

Maiz, diskurtso horiek taldeko diskurtso bihurtzen dira, krisi-egoeretan erraza baita hedatzea eta haiekin bat egitea. Hori gertatzen da, adibidez, gizartearen segmentu batek bizkarra ematen dionean errealtate bati (maiz aldaketa baten traumaren aurka borrokatzean) eta erosoago sentitzen denean gezurrarekin. Aldaketa hori izan liteke biztanleriaren zati batek pribilegioak galtzea; gizonek, genero-berdintasunarekin lotutako aurrerapenen ondorioz, adibidez; hori da indarkeria matxisten negazionismoen kasua. Beste kasu bat da botere ekonomiko handiek gizartearen aldaketen aurrean izan ohi duten erresistentziarena, ingurumen-kontzientziarekin lotuta, esate baterako; hori da klima-aldaketaren negazionismoaren kasua.

Horrekin batera, esan behar da diskurtso negazionista jakin batzuek indarkeria legitimatzen dutela; gorroto-diskurtsoak dira haien jatorria. Bi diskurtso mota horiek adierazpen-askatasunaren muga daude, aurrerago ikusiko dugun moduan.

“Jarraitzaileak” lortzeko eta hedatzeko, negazionismoek zientzia eta pseudozientzia, historia eta nobela edo zientzia fikzioa banatzen dituen muga jolasten dira. Diskurtso horiek zalantzan jartzen dituzte ikerketa-prozesu luzeek bermatutako teoria zientifiko eta errealtate historikoak; adibidez, klima-aldaketaren ebidentziak. Horretarako, negazionismoa iritziaren, zurrumurruaren, susmoaren eta fikzioaren eremuan mugitzen da, baina mozturro asko ditu, eta badirudi iturri era erreferente entzutetsuak dituela.

Diskurtso negazionista horiek ez dira bat-batean agertzen, eta hedabide handiek, lobbyek eta nazioko eta nazioarteko beste interes ekonomiko eta politiko batzuek sortzen dituzte, nahita, iritzi eta sinesmenak sortzeko gaitasun handia baitute. Garrantzitsuena da gazteei azaltzea manipulatu daudela ikusten ditugun informazio eta diskurtsoetako asko, joera batetik edo bestetik, eta, ondorioz, inoiz baino beharrezkoagoa dela beti aktibatuta edukitzea kritikoak izateko eta gure iritzi propioa izateko aukera ematen diguten baliabideak.



¿NOLA FUNTZIONATZEN DUTE NEGAZIONISMOEK? DISKURTSO NEGAZIONISTEN ESTRATEGIA ETA ELEMENTU NABARMENENAK.

Pentsamendu paranoikoa: pentsamendu horrek konspirazio-teoriak edo teoria paranoideak eraikitzen ditu; mundua mugitzen duten botere faktikoetan sinesten du, eta ezjakin bihurtzen ditu desberdin pentsatzen duten pertsona gehienak; pentsamendu horrek gehienentzat ezkutuan dauden fikziozko errealtateak planteatzen ditu... “Iruzur egiten ari dira!”.

Sublimazioa: diskurtso negazionistak sortzen dituzten pertsonak gainerakoaren aurrean zentzua ematen dien eta gaineratik jartzen dituen errealtate bat eraikitzen dute; uste dute profesionalak baino gehiago dakitela, eta pertsona gehienak baino azkarragoak direla; haien ustez, gainerakoak “gezur handi” baten presoak dira, eta beldurtuta daude. “Egia jakingo balute!”, “noizbait jakingo dute”.


Plan ideologiko artikulatu bat: indarkeria matxistak eta klima-aldaketa ukatzearen kasuan, diskurtso negazionistak estrategia argia dira pribilegio eta botere ekonomiko eta politiko jakin batzuk mantentzeko.

ESTRATEGIA NEGAZIONISTAK:

- Arrazoi eta dogma bihurtzen diren sinesmenak.
- Ez entzutea.
- Eszeptizismo faltsua.
- Errealtatea manipulatzeko da, eta soilik haien argudioak jotzen dira ontzat.
- Tranpa-argumentuak erabiltzen dira.
- Kontrako argudioak murriztu, barregarri utzi, garrantzia kendu edo deformatu egiten dira.

JARDUERA 7
Ikus 54 orrialdean.

TRANPA-ARGUDIOAK.



4.2.5. ¿NOLA ZABALTZEN DIRA DISKURTSO HORIEK?

- **Desinformazioa:** “sortzen, aurkezten eta zabaltzen den informazio faltsu eta engainagarria da, irabazi-asmoarekin edo biztanleria nahita engainatzeko; kalte publikoa eragin dezake”; Europako Batzordeak izendatutako eta desinformazioari buruzko maila handiko adituen taldea.
- **Infodemia:** “informazio gehiegi dagoenean, sarean edo beste formatu batzuetan, eta barne hartzen ditu nahita informazio okerra zabaltzeko saiakerak, osasun publikoaren erantzuna kaltetzeko eta talde edo pertsona jakinen interesak sustatzeko”; Osasunaren Mundu Erakundea; COVID-19aren harira sortu zen, baina gaur egungo gehiegizko informazioari (ez beti fidagarria) buruz ere esan daiteke.
- **Fake News:** termino hori erabiltzen da berri faltsuen hedatzea izendatzeko (terminoaren itzulpenak berak adierazten duen moduan); berri faltsu horiek desinformazio-zirkulu arriskutsua sortzen dute; kazetari askok nahiago dituzte erabili zurrumurru, gezur edo desinformazio terminoak, mota horretako mezuak berrien kategorian sartzeak entzutea kentzen diolako benetako kazetaritzari.
- **Trollak:** Sareetako erabiltzaileak dira, eta Interneten eduki iraingarriak edo geuzurrezkoak argitaratzen dituzte, giro negatiboa sortzeko edo egia desitxuratzeko.
- **Haterak:** beren jatorri etnikoagatik, erlijioagatik, aktibismo feministagatik, eta abarregatik mespretxatzen dituzten beste batzuei, modu obsesiboan, hitzez eraso egiten dieten pertsonak.



JARDUERA 8 Ikus 55 orrialdean.

EGIAZTATU INFORMAZIOA

JARDUERA 9 Ikus 55 orrialdean.

ERABILI MALDITA.ES
TRESNA-KUTXA.

Bertan hainbat motatako edukiak egiaztatzeko tresnak topatuko dituzu: argazkiak, bideoak, fitxategiak... Edukiaren arabera, tresna hauek iradokitzen dira: Wayback Machine, Archive.is, InVid, etab. [Sakatu HEMEN](#)

JARDUERA 10 Ikus 56 orrialdean.

SORTU ZURE ZURRUMURRUA

JARDUERA 11 Ikus 57 orrialdean.

¿ZER ESATEN DUTE
INTERNETEN?

4.2.6. SARE SOZIALEN POLARIZAZIOA ETA INFLUENCEREN ROLA NEGAZIONISMOEN HEDAPENEAN.


Hasiera batean, uste zuten sare sozialak eta uneko mezularitza-kanalak heldu zirela munduko pertsona guztiei ahotsa emateko eta informaziorako sarbidea demokratizatzeko. Hala ere, sare sozialak pixkanaka kontrakoa eragiten hasi ziren, hau da, zatiketa eta gorrotoa sortzen hasi ziren.

Facebook, Twitter, Instagram, Tiktok, YouTube eta Googleren helburua da gure arreta ahalik eta denbora gehien erakartzea. Horretarako, eduki polemikoa erakusten dute, gorroto-diskurtsoak eta negazionismoa barne. Zenbat eta muturrekoagoa izan edukia, orduan eta arreta gehiago erakartzen du; beraz, ikustaldi gehiago ditu eta biralago bihurtzen da; horrek diru gehiago dakar.

Sare sozialek eta haien algoritmoek gure munduaren ideia eta aurreiritziak indartzen dituen edukia eskaintzen digute, baina muturretara bideratuta eta aurkako errealitateak ezkutatuta. Horrek talde antagonikoak sortzea dakar. Badago beste faktore bat: influencer bihurtu diren pertsonak.

Konektatutako sare batean, nodo bakoitza pertsona bat da, eta beste batzuekin harremanak finkatzen ditu. Influencerak gainerakoek baino askoz konexio gehiago ditu; beraz, argitaratzen duen informazioa pertsona kopuru handi batengana helduko da.

Askotan, influencerak erabiltzen dituzte ideia bat aurkezteko, eta hori aurreiritzi, zurrumuru, teoria faltsu edo gorroto-diskurtso bihurtuko da.



KONTUZ! HONELA FUNTZIONATZEN DU

Bi ikerlarik, Olivia Little-k eta Abbie Richards-ek, [azterlan](#) bat egin dute, eta frogatu dute Tiktok sarearen algoritmoak, oro har, eduki transfobikoarekiko interesa interpretatzen duela neonazien ezaugarri gisa, eta eskuin-muturreko bideoak gomendatzen hasten da.

Azaldu duenez, gai transfoboek "gustuko dut" eman ondoren, eduki misogino, homofobo eta arrazistak agertu zitzaizkion, eta, azkenik, laurehungarren Tiktok-aren ondoren, indarkeriaren aldeko eduki faxistak.

Gorrito-edukiek gora egin ahala, orduan eta diskriminazio gehiago batzen dira, antisemitismoa, adierazpen neonaziak eta konspirazio-teoriak barne.

Tiktok kontsumitzen duen pertsona orok badaki 400 bideo ikus daitezkeela pare bat egunetan. Pertsona batek kontu bat sor dezake gaur, eta, etengabe bideoak ikusiz gero, bi egun barru propaganda neonazia jaso dezake.

Gorrito sexistaren diskurtsoak ohikoagoak dira testuarekin lotura gutxiago duten sare sozialetan; adibidez, Instagramen eta Tiktoken.

FACT CHECKING: INFORMAZIOA EGIAZTATZEA


ZERBITZU OSO INTERESGARRIAK DAUDE WEBGUNE HAUTAN: MALDITA.ES, NEWTRAL.ES, VERIFICRACKS, ETAB.



Madrilgo metroan argitaratutako kartela.



4.2.7. ONLINE GORROTOA ETA NEGAZIONISMOA AHALBIDETZEN DITUZTEN ELEMENTUAK:




ANONIMOTASUNA ETA DISTANTZIA

Gorrito-diskurtsoen eta negazionisten "sustatzaile" nagusiak dira; pertsona asko ausartzen dira gauza jakin batzuk esatera sareetan, baina bizitza errealean ez lirateke gai izango.



ARAUAK ETA MUGAK



Gorrito-diskurtsoak hazi egiten dira, sare sozialek jokabide- eta erabilera-arau argiak ez dituztenean, edo badituztenean eta ez badituzte behar bezala jakinarazten.



ZIGORGABETASUNA

Gorrito-diskurtsoak zabaltzeko testuinguru bikaina sortzen da, sare sozialen erabiltzaileek ikusten dutenean, batetik, ez dutela ondoriorik mugak igarotzen dituzten eta arauak urratzen dituzten jokabideek, edo, bestetik, ondorio horiek onar edo ekidin daitezkeela.

LEKUKOAK



Ez daude “gorrotatuen” artean, baina badakite izan daitezkeela haien alde egitea erabakitzen badute.

Lekuko horiek konplize bihur daitezke, ez badute euren iritzia ematen, besteei egiten uzten badiete edo beste alde batera begiratzen badute. Bidegabekeriaren aurrean isiltzen bagara, bidegabekeria egiten duenaren konplize bihurtzen gara. Konplize bihurtzeko beste modu bat irainak, meme mespretxagarriak edo zurrumurruak partekatzea da, nahiz eta zuzenean ez sortu.

JARDUERA 12
Ikus 59 orrialdean.


SARE SOZIALEK MANIPULATZEN BAGAITUZTE? PENTSATU DUZU?



BAKARRIK EZ DAGOEELA SENTIARAZI

KEN IEZKIOZU ENTZUNALDIA ERASOTZAILEARI

ASA AUSAUTA ZARA



BIDEGABEKERIA-EGOERA BATEAN NEUTRALA BAZARA, ZAPALTZAILEAREN ALDEA AUKERATU DUZU


DESMOND TUTU
PREMIO NOBEL DE LA PAZ 1984

4.3.

NORAINO HELTZEN DA ADIERAZPEN-ASKATASUNA?

Adierazpen-askatasuna funtsezko eskubidea da, eta ezinbestekoa da iritzi publiko anitz eta plurala sortzeko; azken hori oinarritzko baldintza da edozein sistema demokratikotan. Komunikazioa eta eztabaida funtsezkoak dira gizarte demokratiko eraginkorra eraikitzeko.

Hala ere, adierazpen-askatasuna ez da eskubide “absolutua”, eta ez da egoera guztietan mugarik gabe aplikatzen. Eskubide hori beste pertsona batzuen eskubideekin edo, oro har, gizartearen ongizatearekin orekatu behar da. Hori bai, bermatu behar da ez dagoela kalterik, adierazpenek interes publikoa dutela eta xede konstituzional baten atzetik daudela.



ADIERAZPEN-ASKATASUNA LEGEDIAN

GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALAREN 19. Art.

GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO HITZARMENAREN 10. art.

(Zehazten du eskubide hori murriztu daitekeela, besteak beste, delitu-jokabideak saihesteko eta gainerako pertsonen entzutea eta eskubideak babesteko, betiere legeak aurreikusten badu eta adierazpen-askatasunaren mugak “beharrezkoak” eta “proportzionalak” badira).

ESPAINIAKO ZIGOR-KODEAREN 510. art.

Delitutzat jotzen ditu jokabide hauek:

- 1.-** Zuzenean edo zeharka sustatu eta piztea pertsona edo talde baten aurkako gorrotoa, etsaitasuna, diskriminazioa edo indarkeria, jatorriarekin, fenotipoarekin, erlijioarekin, etniarekin, ideologiarekin, orientazio edo identitate sexualarekin, generoarekin, gaixotasunarekin edo desgaitasunarekin lotutako arrazoiengatik.
- 2.-** Gorrotoa, diskriminazioa eta indarkeria sustatu eta pizteko materiala ekoitzi, prestatu, eduki eta banatzea (edozein bideren bidez, Internet barne), aipatutako arrazoiengatik.
- 3.-** Gorroto-delitu bat publikoki goretsi edo justifikatzea.
- 4.-** Pertsona bat edo gehiago umiliatu, mespretxatu edo gutxiestea dakarten ekin-tzak, aipatutako arrazoiengatik, baita pertsona horien duintasuna kaltetzen duen edukia ekoitzi, eduki eta zabaltzea ere.
- 5.-** Genozidioa eta gizateriaren aurkako delituak ukatu, arinki hartu edo publikoki gorestea, baldin eta biktima-taldeen aurkako indarkeria, etsaitasun, gorroto edo diskriminazioaren giroa sustatzen bada.

JARDUERA 15
Ikus 60 orrialdean.

MUGARIK GABEKO
ASKATASUNA?

OTROS RECURSOS PARA LEER, VER Y PROFUNDIZAR

Irakurketa: Desinformazio bat nola biralizatzen den eta gezurtatzeak nola geldiarazten duen

Bideoa: Zer da desinformazioa?

Bideoa: Nola sortu eta zabaltzen da desinformazioa?



5. AURREIRITZIEN ITUA

● Helburua:

- Taldearen aurreiritzi eta estereotipoak identifikatzea eta nola erakitzen diren ulertzea.

● Beharrezko baliabideak:

Papera, ohar itsasgarriak, arbela, boligrafoak eta errotuladoreak.


● Garapena:

1. urratsa. Taldearen barruan 3 talde sortuko ditugu. Lehenengoari gako-hitz bat emango diogu, eta gainerakoek ez dute jakingo zein den. Adibidez: "IJITOA". (Beste adibide batzuk: musulmana, txinatarra, asturriarra, lesbiana...). Taldeak hitz horrekin lotutako hitzak pentsatu behar ditu.

Horretarako, denbora-tarte mugatu bat izango dute. Hitz hori hiru mailako itu baten erdigunean ipiniko da, eta hitzak idatziko dituzte hurrengo zirkuluan (2. zirkulua, erdigunetik zenbatzen hasita). Beste bi taldeek gauza bera egingo dute antzeko hitz batekin.

2. urratsa. Lehen taldearen hitzak bigarrenari emango dizkiote, baldintza batekin: ez dute jakingo zein den gako-hitza (estali egingo dugu lehen zirkuluko hitza). Hitz-zerrenda irakurrita, taldeak beste batzuk idatziko ditu azken zirkuluan (hirugarrena, erdigunetik zenbatzen hasita), aurrekoetan oinarrituta. Bigarren taldeak lana hirugarrenari pasako dio, eta azken honek hurrengoari, lanean jarraitzeko.

3. urratsa. Gako-hitza erakutsiko dugu. Hirugarren taldeak gako-hitzaren ("IJITOA") definizioa sortu beharko du ituan jasotako hitz guztiekin.



● Hausnarketarako ideiak eta galderak:

- Zer gertatu da? Nolakoa da hirugarren taldearen definizioa? Zer inpliketzen du? Zer ikasi duzue?
- Nola hurbiltzen edo aldentzen zaituztete kolektibo edo pertsona jakinekin lotzen dituzuen ezaugarriek?
- Orokortzen ari gara? Esan dezakegu pertsona zuri guztiak alkoholikoak direla haietako batzuk direlako?
- Estereotipoaren eta aurreiritziaren definizioa.



40 / 50 MINUTU

parte-hartzaileen eta erabiltzen dituzten hitzen kopuruaren arabera.

Iturria:

[Zurumurrak desagiteko jokoak. Zurumurrak deuseztatzeko gazteentzako jardueren eskuliburua. Bilboko Udala](#)

6. JARDUERA: ENPATIA-MAPA

● Helburua:

- Beste pertsona edo kolektibo baten errealitatea ulertzea, saiatuz pertsona gisa eraikitzen duten elementuak ulertzen eta interpretatzen.
- Entzunaldi aktiboa eta enpatia garatzea.

● Beharrezko baliabideak:

Kartulina handi bat (edo gehiago, talde osoarekin egin ordez azpitaldeak sortu nahi baditugu) enpatia-maparekin, bete gabe (soilik eskeletoa). Enpatia-mapa sortzeko, erdigunean zirkulu handi bat marraztuko dugu. Barruan idazteko espazioa eduki beharko du.

Begiak eta belarriak marraz daitezke "buru" handi bat izan dadin. Erdiguneko zirkuluaren inguruko eremuak honela etiketatuko ditugu: entzun, pentsatu, ikusi, esan, sentitu eta egin.

● Garapena:

1. urratsa. Taldeari eskatuko diogu taldearekiko oso desberdina den pertsona batengan pentsatzeko. Aukeratu ondoren, eskatuko diegu pertsona horri izena jartzeko (pertsona horrek kolektibo bat ordezkatzeko).


2. urratsa. Taldea, pertsona horren ikuspuntutik, saiatu egingo da haren esperientzia deskribatzen, 5. jardueran jasotako aditz-kategoriei erantzunez.

3. urratsa. Laburpena egingo dugu: Zer nahi du pertsona horrek? Zein dira haren motibazio-iturriak? Zergatik uste duzu dela horrelakoa edo pentsatzen duela modu jakin batean?

● Hausnarketarako ideiak eta galderak:

- Nolakoa izan da beste pertsona bat ulertzen saiatzea? Nolakoa izan da haren errealitatea deskribatzen saiatzea? Lortu duzue? Errealak da marraztu dena edo subjektibotasunez egin da? Estereotipoek eragin dute?

- Aurreiritziek eragin dute? Desadostasunak egon dira taldean edo erraza izan da? Horrelako ariketa batean inplikatzeko eta beste pertsona baten tokian jartzeko mundua ulertzeko modua aldatu du? Harena ulertzeko modua aldatu du? Elementu komunak ikusi dituzue?
- Adibidez, amets eta aspirazioetan edo beldur eta frustrazioetan.



● ALDAERAK:

Jarduera hori talde osoan egin daiteke, edo talde txikiagoetan banatuta. Azken kasu horretan, interesgarria izan daiteke talde bakoitza pertsona edo kolektibo batean zentratzea. Amaitzean, bi mailako hausnarketa egin beharko litzateke. Alde batetik, zehatzari buruz: enpatia-maparen oinarria izan den pertsona. Bestetik, oro har, prozesuari buruz.

Iturria:



90 / 120 MINUTU

Iturria:

[Zurumurruek desegiteko jokoak](#). Gazteak. Zurumurruek deuseztatzen dituzten gazteentzako jardueren eskuliburuak. Bilboko Udala.

7. TRANPA-ARGUDIOAK

● Helburua:

- Negazionismoak ideia faltsu eta irrazionalei eusteko erabiltzen dituen estrategiak ezagutzea.
- Baliozkoak ez diren argudioak identifikatu, eta horiei aurre egiteko gaitasunak garatzea.

● Beharrezko baliabideak:

Fitxa-adibideak (ikus 1. eranskina) eta partekatzeko arbela.

● Garapena:

1. urratsa: Hasieran, azalduko dugu negazionismoak nola funtzionatzen duen eta zein estrategia erabiltzen dituen, arreta berezia jarri tranpa-argudioetan: Tranpa-argudioa da ondorio oker batera daraman arrazoiketa, aurreiritziak erabiliz eta informazioa manipulaturik.

2. urratsa: Taldeak osatuko ditugu, eta bakoitzak adibide-fitxa bat jasoko du aztertzeko.

3. urratsa: Talde bakoitzak bere adibidea aztertu ondoren, partekatu egingo du, eta talde bakoitzak atera dituen ondorioak azalduko ditu.

● Hausnarketarako ideiak eta galderak:

Zer iruditzen zaizue erantzuna? Baliozkoa da? Erantzunak lotura du lehen baieztapenarekin? Arrazoizkoa da? Pertsona baten itxurak ondorio horretara eraman gaitzake? Noizbait ikusi duzue beste pertsona batzuei gertatu zaiela?



60 MINUTU
Baina luza daiteke, adibide gehiago erabiliz.

Iturria: lan propioa.

8. EGIAZTATU INFORMAZIOA

● Lotura baliabideekin:

DRIVE

● Iturria: Maldita.es

Lección 8. Aprender a observar imágenes y vídeos

¿Un accidente de avión en Etiopía...?

10 de marzo de 2019. Un avión (modelo Boeing 737-800MAX) de la compañía Ethiopian Airlines se estrella en Adis Abeba, Etiopía. Pocas horas después, éste vídeo circulaba por las redes sociales. ¡Descubre cómo comprobar si corresponde al accidente o no!

Escanea el código QR para ver el vídeo

PASOS A VERIFICAR

1 ¿Cuándo empezó a circular? Si el vídeo empezó a difundirse por internet antes de la fecha del accidente ya podemos demostrar que es falso que corresponda a este suceso. Este tipo de búsqueda de llama "Búsqueda inversa" y, por ejemplo, se puede hacer con un plugin llamado InVID. Si lo utilizas, verás que ese mismo vídeo se publicó en internet el 30 de abril de 2013, por lo que ya puedes probar que es falso que corresponda al accidente de Etiopía.



2 Observa lo evidente: mira qué cosas llamativas del vídeo puedes comprobar. Por ejemplo, el avión del vídeo tiene cuatro motores, que sobresalen en la imagen. Al buscar una foto del modelo que se ha estrellado en Etiopía, Boeing 737-800MAX, verás que ese avión tiene solo dos motores.

3 Buscar el punto exacto del accidente en Google Earth para ver si la orografía coincide con la del vídeo. En el vídeo hay montañas rodeando el lugar. Sin embargo, al buscar la ubicación exacta del accidente, comprobarás que en esa zona no hay ninguna una cadena montañosa.



CONCLUSIÓN

Muchas veces no hace falta tener grandes medios ni conocimientos técnicos para verificar la información. En el caso de vídeo o foto, basta con observar con atención y utilizar un buscador al alcance de cualquiera.



MALDITA
EDUCA



educa.maldita.es

9. ERABILI MALDITA.ES TRESNA-KUTXA

Página maldita.es



10. SORTU ZURE

ZURRUMURRUA

● Helburua:

- Beharrezko baliabideak: Papera eta boligrafoa edo ordenagailua, online lan egin nahi bada.

● Beharrezko baliabideak:

Papel y boli u ordenador si se quiere trabajar con formato on-line.

● Garapena:

1. urratsa: Jarduera honetan gazteek desinformazio-sortzaileen rola hartuko dute. Bakoitzak ZURRUMURRU bat idatzi behar du, kazetaritza-formatuko testu txiki batean, kazetaritzaren 5W-ei erantzunez (nork, zer, noiz, non eta zergatik). Ondoren, gertakaria modu simple eta osoan aurkeztuko dute.

Gaia askea da, baina lotura izan behar du zure auzoan gerta litekeen gertakari erreal batekin. Kontakizunak ahalik eta sinesgarriena izan behar du. "Berriak" izenburua eta gutxienez bi paragrafo izan behar ditu. Posible da Idatzizko testu gisa edo online formatuan planteatzea; kasu horretan, formatua eta irudiak sar litezke.

2. urratsa: Lana amaitzean, ikasleek zurrumurruak trukatu dituzte, eta aztertuko dute adiskideen testuaren zein ezaugarri adierazten duen desinformazioa dela.

3. urratsa: Eztabaida:

- Zeri erreparatu behar diozu zurrumurru bat dela egiaztatzeko?
- Zein zen gezurra zabaltzearen helburua (Publizitatea, troleatzea, iruzur egitea, kaosa sortzea, interes ideologikoa edo beste batzuk)?
- Zein froga behar dituzu zurrumurru bat dela baieztatzeko?
- Nola konbentzitu ditzakezu zure lagunak desinformazioa dela ikusteko?
- Uste duzu eduki hori birala egin litekeela zure auzoan?
- Nolako eragina izango luke istorioa argitaratzeak jakin gabe erreal den ala ez?



1/2 ORDU

Iturra: lan propioa

11. ZER ESATEN DA INTERNETEN?



● Helburua:

- Internetek eta sare sozialek eduki eta ideiak zabaltzeko duten ahalmena ulertzea.
- Interneten zabaldutako eduki, iruzkin edo ideien konnotazio eta esanahiak identifikatzeko gaitasuna garatzea.

● Beharrezko baliabideak:

Interneteko konexioa duen edozein gailu. Onena litzateke hainbat lantaldek batera nabigatzea.

● **Garapena:**

1. urratsa. Googleren bilatzailean, hainbat kolektibori buruzko informazioa bi-latuko dute, esaldi sinpleen bidez: “-----ak -----ak dira”

- “Ijitoak ... dira”
- “Migratzaileak...etortzen dira”
- “Gazteak ... dira”
- “Neskak ... dira”

2. urratsa. Googleren bilatzaileak esaldiak osatzen ditu idatzi ahala. Horri “igarleak”, “bilaketa-igarleak” edo “auto-osatu” deritzo. Aukera hori desaktiba daiteke.

“Auto-osatu” funtzioak eskaintzen dituen bilaketa-kontsultak Interneteko erabiltzaile guztien bilaketa-jardueraren eta Googlek indexatzen dituen webguneetako edukien isla dira. Saioa hasten bada Googleren kontu pribatu batean eta web-historiala aktibatuta badago, baliteke aurretik egindako bilaketa garrantzitsuetan oinarritutako kontsulta-iradokizunak agertzea. Jarduera esaldi horiek lantzean eta haiei buruz hitz egitean datza.

● **Hausnarketarako ideiak eta galderak:**

Nolakoa izan da azterketa? Emaitzek harritu zaituztete? Ideia nagusiez mintzo da?

Uste duzue eragina izan dezaketela esaldi horiek topatzen dituzten pertsonengan?

Aldaerak:

Esaldi edo etiketa horietako batzuk erabiltzea beste sare sozial batzuetan. Youtuben, adibidez, “migratzailea” bilatzea, eta ikustea zein diren lehen bost sarrerak eta zein motatako informazioa ematen duten kolektibo horri buruz.



2 ORDU

Itturria:

[Zurumurruek desegiteko jokoak](#). Zurumurruek deuseztatzeko gazteentzako jardueren eskuliburua. Bilboko Udala

12. ETA SARE SOZIALEK MANIPULATZEN BA GAITUZTE? PENTSATU DUZU?

● **Helburua:**

- Ulertzea sare sozialen atzean enpresak daudela, eta enpresa horiek euren interes propioak dituztela, bereziki ekonomikoak.
- Sare sozialak modu kontziente eta arduratsuan erabiltzen ikastea.

● **Beharrezko baliabideak:**

Interneteko konexioa, proiektorea, ordenagailua.

● **Garapena:**

Netflixeko “El dilema social” dokumentalaren laburpen-bideo bat erabiliko dugu, eta etxean ikusteko gomendatuko diegu.

[El DILEMA de las Redes Sociales Netflix](#) [Analisia + Kritika]

Laburpen-bideoa ikusi ondoren, galdera hauek egingo ditugu:

- Zerk harritu zaituzte gehien, edo zerk erakarri du zuen arreta bideoan ematen den informazioaren artean? Aurretik pentsatu zenuten sare sozialak onurak lortu nahi dituzten enpresak direla? Nola sentitzen zarete? Uste duzue sare sozial batek eragina izan duela gai bati buruz pentsatzen duzuen moduan? Adibideren bat eman dezakezue (pandemia, klima-aldaketa, indarkeria matxista edo pertsona bati buruz...)?

- Zer egin dezakegu manipulazioak ekiditeko?

Eztabaida amaitzeko ideia batzuk:

Mugatzea gure sare sozialekiko mendekotasuna, bertan ematen ditugun orduak eta gure bizitzan ematen diegun garrantzia.

Ez erreproduzitzea gorroto-diskurtsoak edo negazionistak “gustuko dut” emanez edo edukia partekatuz; informazio fidagarria bilatzea susmagarriak iruditzen zaizkigun eduki edo berriei buruz; modu kritikoa pentsatzea jarraitzen ditugun profil eta pertsonetan; zergatik jarraitzen ditugun, zein motatako mezu edo edukiak partekatzen dituzten...


Modu positiboan jokatzeko sare sozialetan.



1/2 ORDU

Iturria: lan propioa.

13. MUGARIK GABEKO ASKATASUNA?



● Helburua:

Adierazpen-askatasunaren mugei buruz eztabaidatzea.

● Beharrezko baliabideak:

Arbela, errotuladoreak eta 2. eranskineko inprimagarriak.

● Garapena:

1. urratsa. Galdetu parte-hartzaileei zer esan nahi duen “adierazpen-askatasuna”. Idatzi ideiak arbelean, eta osatu taldean atera ez diren kontzeptuekin. Ideia-jasa izango da, eta aurrerago horretan sakonduko da:

- Adierazpen-askatasunak esan nahi du nahi duguna esan dezakegula?
- Uste baduzu adierazpen batzuk ez liratekeela baimendu behar, nola erabaki zein debekatu? Nork erabaki beharko luke?
- “Adierazteko” zein beste modu daude, hitz egin edo idazteaz gain? (Musika, antzerkia, irudiak, gorputz-hizkuntza, etab.).


2. urratsa. Eman adierazpen-askatasunari buruzko informazio apur bat. (Ikus x orrialdea –gure gidan)

3. urratsa. Banatu parte-hartzaileak 4 edo 5 pertsonako taldetan, eta eman pertsona bakoitzari 2. eranskineko egoeren kopia bana. Egitekoa da 20 minutuz egoera jakin batzuk komentatzea: jendeak Interneten beste pertsona batzuei eta haien giza eskubideei erasotzen dieten iruzkinak argitaratu dituzte. Taldeek erabaki behar dute ea materiala kendu behar den sareetatik, hau da, beste modu batean esanda, ea adierazpen-askatasuna mugatu behar den.

- Erabakitzen badute baietz: Zer ezabatu behar da? Zergatik?
- Ezetz bada: Zergatik ez? Zer gehiago egin daiteke? Nork egin dezake?

4. urratsa. Partekatzea:

- Talderen bat iritsi da akordio batera? Zeintzuk dira zuen iritzien arteko desberdintasun garrantzitsuenak?
- Zuen erabakiari dagokionez: Eragina izan du argitalpenen arduradunak? Eragina izan du argitalpenari erantzun dioten pertsonen kopuruak eta moduak?
- Norbaitek prestatu du arau bat erabakitzeko noiz mugatu daitekeen (edo behar den) adierazpen-askatasuna? Zeintzuk dira murrizketa gehiegi ezartzearen arriskuak? Zeintzuk dira murrizketa gutxiegi ezartzearen arriskuak?
- Uste duzu Interneten gorroto-diskurtsoei aurre egiteko modu eraginkorra dela webguneak ixtea eta sareetatik eduki delikatua kentzea?



45 MIN / 1 ORDU


Fuente:

[Guía Breve: Orientaciones para combatir el discurso de odio en internet a través de la educación en derechos humanos. 2019. Injuve eta EK.](#)



05

GENERO- INDARKERIAREN NEGAZIONISMOA.





HAIEN ARGUDIOAK DESMUNTATZEN:


Genero-indarkeriaren negazionismoaren argudio nagusiak:

	<p>Feminismoa ideologia politiko bat da, eta ez berdintasunaren aldeko mugimendu bat.</p>
	<p>Emakumeak ez daude diskriminazio-egoeran gizonekiko -> ez dago egiturazko desparekotasun edo indarkeriarik</p>
	<p>Ez dago emakumeen aurkako indarkeria espezifikorik</p>

5.1.1. Teoria negazionista bat sortzen dute genero-indarkeriaren inguruan.

Feminismoa genero-ideologiatzat jotzen da, eta haren helburua da familia tradizionalari bete-betean erasotzea (heterosexuala, ugaltze-
ra bideratua eta gizon eta emakumeentzako rol argiekin).

Genero-ideologiaren teoria hori eskuin-muturrak erabiltzen duen tresna politiko bat da, feminismoa gutxiesteko, eta ideia hauetan oinarritzen da:



SEXU-GENEROA SISTEMAREN NOZIOA UKATZEN DU.

“Generoa zurrumurru ideologiko bat da”

“Oinarri zientifikorik gabeko emozio-teoria bat da”

Sexu-generoa sistema Gayle Rubin-ek garatu zuen, 1975ean. Haren arabera, “sexu biologikoa ez da denboran zehar aldatzen; generoa, berriz, aldakorra da. Hainbat arau, rol eta jokabidek osatzen dute, eta horiek zehazten dute gizarteak gizon eta emakumeengandik espero duena. Arau horiek aldatu egiten dira denborarekin, eta historian zehar desberdinak izan dira kulturaren arabera; beraz, generoa “eraikia” da, eta ez naturala, eta horrek aukera ematen du gizarteak gizon eta emakumeengandik espero duena desnaturalizatu eta “normatibo” gisa ikusarazteko.

“Genero-eraikuntza horretan ari da sortzen genero-desparekotasuna; izan ere, emakumeei emandako atribuzio guztiek gizonen mende eta zerbitzura jartzen dituzte, eta azken horiek hartzen dira erreferentziazat”. Generoaren gizarte-eraikuntza hori, beraz, alda daiteke, eta horrek aukera ematen du emakumeak kulturalki ezarritako elementuetatik askatzeko¹.

Gaur egun ere baliozkoa da teoria horrek azaltzen duen generoaren izaera menderatzaile eta eraikia, eta azaltzen digu patriarkatuak ezarri duela emakumeen mendekotasuna. Hala ere, aldi berean, geroz eta gehiago argudiatzen da sexua ere eraiki daitekeela. Biologia, zientzia gisa, ezagutza sortzeko praktika bat da, eta une jakin batean jaio zen (XIX. mendea); beraz, soziala ere bada. Gaur egun, esan ohi da sexua neurri handi batean ugalketatik harago doan gizarte-errealitate bat dela eta, beraz, eralda daitekeela.

¹. Iturria: “COEDUCANDO. Hacia una Ciudadanía Global comprometida por un mundo libre de violencias machistas”, María Monjas Carro. InteRed.

Gida honetan adierazi nahi dugu sexu-generoa teoria queer teoriekin osatu behar dela, inor baztertu gabe:

• **Pertsona intersexualak:** haien kasuan, ezin dugu sexu bitar bakarra esleitu jaiotzean; intersexualitatea zientziak frogatu du, eta sexu-graduen aukera zabalagoa irekitzen du (genitalen, gonaden eta kromosomen arabera), eta horiek ez dira sartzen biologiak gizon eta emakumeekin egiten duen sailkapenean; emakumea eta gizona ez diren sexu-identitateen beste kategoria batzuk sortu behar dira.

• **Trans identitatea duten pertsonak:** "Pertsona horiek ez dira identifikatzen jaiotzean esleitzen zaien generoarekin, eta, alde batetik, baliteke esleitu zaien generoa aldatu nahi izatea, hau da, haien gorputzari esleitutako sexuari dagokionaren aurkakoa, edo, bestetik, baliteke erdibidean bizi nahi izatea, ezarritako bi generoetako bat aukeratu gabe (ez bitarrak)". María Monjas Carro.



Gai honetan gehiago sakondu nahi baduzu, hemen dituzu pare bat baliabide interesgarri:

[Bideoa](#) "Qué es la diversidad sexual. Explicación fácil"

[Artikuluak:](#) queer teoria.



ZER EGITEN DU SEXU-GENEROA SISTEMAREN NEGAZIONISMOAK?

Generoaren gizarte-eraikuntza ukatzen du, eta saiatzzen da patriarkatuaren oinarriari gogor eusten; horretarako, adierazten du ez dagoela arrazoi biologikorik gure gizartean emakume eta gizonen rola bereizteko. Hau da, baieztatzen du rola desberdin horiek horrelakoak direla naturan.



Genero-estereotipoak elikatzen dituzte.

Genero-estereotipoak indartzeko, gure sexu biologikoak zehaztutako desberdintasunak identifikatzen dituen diskurtso erabilia indartzen dute, gizartean dugun rola zehazteko; horrela, mendeetan zehar indarrean egon diren genero-rolak justifikatzen dituzte. Helburua da gizartean eraiki eta ezarritako sexu-bereizketari eustea, eta rola hauek zehazten ditu:

- **Emakumeen rol tradizionalak:** etxearekin, ugalketarekin eta beste pertsona batzuk zaintzearekin lotuta.
- **Gizonen rol tradizionalak:** arlo publikoarekin, ekoizpen-funtzioekin eta boterearekin lotuta.

Rola horietatik estereotipo ugari eratortzen dira, eta horiek negatiboak dira, bai gizonentzat, bai emakumeentzat; izan ere, eredu itxiak dira, eta eraldatzeko zailak.



Sexu-orientazio desberdinak ukatzen ditu, eta uste du homosexualitatea edo transexualitatea zentzugabekeria direla.

Uste du heterosexuala dela osasuntsua, baliaduna eta ohikoa den orientazio sexual bakarra. Gainerako aukera guztiak normaltasunetik desbideratzen dira; sendatu beharreko gaixotasunak edo patologiak dira, arriskutsuak direlako defendatzen dituen bikote eta ohiko familien eredu heterosexualerako.



- **Feminismoaren ideia okerra du, uste baitu emakumeen nagusitasuna bilatu eta gizonen kontra borrokatzen duen mugimendua dela.**

JARDUERA 14
Ikus 82 orrialdean.

MUNDUA ETA BIOK

TUIITS



ZER DA FEMINISMOA?

Mugimendu horren helburu nagusia da bi sexuen arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna defenditzea. Mundua, botere-harremanak, gizarte-egiturak eta sexuen arteko harremanak ulertzeko modua da; horregatik, pertsona eta emakumeen aldeko aldarrikapenak ikuspegi anitz, despatriarkalizatzaile eta deskolonizatzailetik egiten dira.

Gaur egun, nahiago dugu FEMINISMOEZ pluraletan hitz egin, mugimenduaren aniztasuna onartzen dugulako. Gainera, puntu geografiko desberdinetako korranteek autokritikarako eta berrikuspenerako aukera ematen dute, baita pentsamendua eraikitzeko gaitasuna ere. Gure iritziz, horrek ez du esan nahi korrante desberdinen arteko talkak egon behar direnik; izan ere, gehiago dira elkartzen gaituztenak (berdintasunaren defentsa, sistema patriarkala sozialki eraldatzeko nahia, justizia sozialaren nahia) aldentzen gaituztenak baino, eta horregatik defendatzen dugu aliantza eraldatzaileak sortzeko aukera erreala.

Bestalde, matxismoak "gizonezkoek emakumeekiko duten nagusitasun-jarrera" irudikatzen du, bai eta "gizonaren lehentasuna defendatzen duen sexismo mota" ere.

Definizioak gora-behera, bi termino horiek ezin dira konparatu; izan ere, feminismoak sexuen arteko berdintasuna eta botere-harremanen egituraaldaketa bilatzen du; matxismoak, aldiz, gizonen gailentasuna.

Gaur egungo feminismoaren aurkako jarre-
rak argudiatzen du feminismoak jada bere helburuak lortu dituela, eta orain gizonen aurkako bidegabekeriak daudela. Jarrera horrek ez du kontuan hartzen gaur egun oraindik existitzen den desparekotasun handia.

Amelia Valcarcel-ek «berdintasunaren ilusioa» terminoa erabili zuen gizon eta emakumeen arteko berdintasuna jada existitzen den ideari erreferentzia egiteko. Ideia hori nahiko zabaldua dago. Ustezko berdintasun hori onartzen badugu, ondorioztatuko genuke ez dela beharrezkoa emakumeen egoera hobetzeko neurriak sustatzea. Asko diren arren mugimendu feministek munduan sustatu dituzten aurrerapenak, ezin da esan guztia aldatu dela. Berdintasun formalean aurrerapenak egon diren arren, ez da munduko emakume guztientzat lortu, eta oraindik ez dago benetako berdintasunik. Gizarteek jarraitzen dute patriarkalak izaten, eta jarraitzen du emakumeen aurkako bereizkeriak.

JARDUERA 15
Ikus 83 orrialdean.

GEROZ ETA HETEROSEXUAL
GUTXIAGO GARA?



5.1.2. Ukatu egiten du emakumeak bazterkeria-egoeran bizi direla gizonekin alderatuta.

Negazionismoa: “Ez dago daturik emakumeei lan bera, produktibitate berarekin eta egoera berean lan egiteagatik gutxiago ordaintzen zaiela bai- eztazen duenik”.

Errealitatea: , EINaren arabera (Estatistikako Institutu Nazionala) Espainian emakume eta gizonen arteko batez besteko soldataren aldea % 16koa izan zen 2020an. Batez besteko soldataren aldea 358 eurokoa da hilabeteko.

BRECHA SALARIAL

Multa de 15.625 euros a una empresa por pagar menos a las mujeres

Las trabajadoras cobraban un 39,32% menos que los hombres como ayudantes de cocina en un comedor escolar.

[Argazki-oina 21/03/16ko berria, Público.es webgunean](http://Publico.es)

Negazionismoa: “Kristalezko sabaia ez da bazterkeriagatik gertatzen. Ez dira eraginkorrak eta bidegabeak dira egoera hori aldatu nahi duten berdintasun-poli tikak: (...) ez dute ekiditen emakumeek nahiago izatea gutxiago ordaindutako lanak edo etxeko lanei denbora gehiago eskaini nahi izatea”.

Errealitea: Espainian, emakumeen esku daude zuzendaritzako ardura duten karguen % 35 baino gutxiago, EINaren azkeneko datuen arabera.

Empresas y finanzas

Las mujeres ocupan menos del 35% de los puestos de responsabilidad directiva en España


[El economista.es 27/01/2022](http://ElEconomista.es)

Negazionismoa: “Etxeko lana, bere-berezko izaeragatik, doakoa da, partekatzen da, familientzat onuragarria da, eta horren barne negoziatu behar da”.

Errealitatea: Emakumeek gizonen baino zailtasun handiagoak dituzte lana uztartzeko: Gize Segurantzako Institutu Nazionalaren arabera, 2018an, haien lan-jarduera eten zuten 59.466 langileetatik (eszedentziak) % 89 emakumeak izan ziren.

Oso esanguratsua da 2017ko maiatzaren Ikerketa Soziologikoen Zentroko barometroa: hamar gizonetatik soilik bik partekatzen dituzte etxeko lanak (garbiketa eta bazkaria prestatzea), eta emakumeen % 6k beti edo ia beti egiten ditu lanak bakarrik. Gizonen etxeko lan nagusia izaten da etxeko “konponketa txikiak” egitea.

Etxeko lanen banaketa 2017ko Ikerketa Soziologikoen Zentroko barometroko datuen arabera. Iturria: [El País](http://ElPaís)



5.1.3. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA UKATZEN DUTE.

HURRENGOA DA NEGAZIONISTEN DISKURTSOA:

“Ukatzen badugu indarkeria emakumeek zein gizonak gauzaten dutela, ez dira hartuko familiako nukleoa eta bertako harremanak babesteko prebentzio-neurri egoki eta eraginkorrak, bereziki haurrak eta adineko jendea babesteko; izan ere, hori da identifikatzen zailena den indarkeria-mota nagusia (omisio-indarkeria edo arduragabekeria), eta, ondorioz, salaketa gutxien jasotzen dituena. Mota askotakoak dira generoindarkeriaren aurkako legearen arazoak: ez du emakumeen aurkako indarkeria ezabatzen; emakumeak eta gizonak modu asimetrikoan tratatzen ditu; eta, adierazten du bikote batean gizonak beti erasotzen duela matxismoagatik”.

Iturria: Mitos y realidades. El Feminismo ¿Es el feminismo dominante un movimiento liberador para la mujer? Instituto Juan de Mariana –okdiario bidez hedatuta..”

HONAKO HAU DA ERREALITATEA:

♀ **Feminizidioa da 15 eta 44 urte arteko emakumeen heriotza-kausa nagusia.**
Femicidio.net

♀ Espainian, **1.144 hildako egon dira genero-indarkeriaren** ondorioz, 2003ko urtarrilaren 1etik gaur egunera arte (2022ko maiatzaren 13a). Genero-indarkeriaren Aurkako [Gobernuaren](#) Ordezkaritza.

♀ Espainian, 2021ean, **42 emakume hil ziren genero-indarkeriaren** ondorioz.
[Monkloako prentsa-zerbitzua.](#)

♀ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Txostenaren arabera, 2020. urtean zehar, **etxeko indarkeriako 7 kasu** erregistratu ziren, eta, horien artean, emakume batek gizon bat hil zuen. Txosten honek argitzen du hitzez hitz: “Emakumeek burututako indarkeria-kasuetako ehuneko zehatz bat (2020ko kasuen % 42,9) **‘erantzuneko indarkeriaren’** barne dago, hau da, alde aurretik emakumeak genero-indarkeria pairatzen zuen gizonaren partetik. Beste aldetik, 2020ko feminizidioko 46 kasuetan, ez zegoen gizonak emakumeari alde aurretik jarritako salaketarik”.

Zergatik EZ DIRA GAUZA BERA genero-indarkeria eta etxeko indarkeria?



Violencia de género: Genero-indarkeria: ‘emakumeen aurkako indarkeria’ giza eskubideen urratzea eta emakumeen aurkako diskriminazio mota da, eta generoan oinarritutako indarkeria-egintza guztiak hartzen ditu barne, baldin eta emakumeei izaera fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko kalteak edo sufrimenduak eragiten badizkie edo ekar badiezazkieke, baita ekintza horiek egiteko mehatxuak, derrigortzea edo askatasun-gabetze arbitrarioa ere, bizitza publikoan edo pribatuan”.

Istanbulgo HITZARMENA berresteko tresna, 2011. [BOEn](#) argitaratuta.

Bestalde, **etxeko indarkeria edo familiako indarkeria** da etxeko unitatearen edo familiaren, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren bizikidetzaren esparruan (espazioan eta harremanean) gertatzen den indarkeria, eta emakumeek edo gizonak eragin dezakete.

Familia barneko indarkeriaren adibide bat da zure osabak, Gabongaueko afarian, zure aita jotzea.


7

Diskurtso negazionistak ezetz dioten arren, indarkeria-mota hori Zigor-kodean arautzen da jada; beraz, ez da lege berririk behar. Gainera, familiaren barneko haurren kontrako tratatu txarrak ere arautzen dira. Horrez gain, hobetu egin behar da genero-indarkeria jorratzen duen arau juridikoa; izan ere, garbi dago ez dituela indarkeria matxistaren aurkako biktimak babesten.

Egia da emakumeak ere erasotzaileak izan daitezkeela (pertsonek guztien antzera) eta etxeko indarkeria gauzatu dezaketela, baina **INDARKERIA HORREN ARRAZOIA EZ DA GENERO-A, EZ DA EGITURAZKOA.**

Genero-indarkeria da pertsona baten edo pertsona-talde baten aurkako indarkeria, pertsona horien generoaren ondorioz, desberdintasunetan eta genero baten (maskulinoa) eta bestearen (femeninoa) gaineke botere-harreman estrukturaletan oinarrituta. Hau da, orain arte boterea mantendu duen generoak burutzen duen indarkeria da, hots, gizonen emakumeengan. Orokorrean gertatzen da emakume horiek zalantzan jartzen dituztenean gizonen esleitu dizkieten rola.

Etxeko indarkeriaren ordean genero-indarkeriaz hitz egiteak aukera ematen digu gizonen emakumeen gainean dituzten egiturazko indarkeriak etxeko eremutik "ateratzeko", eta, beraz, arlo pribatutik arlo publikora eramateko; era horretan, indarkeria horien jatorria gizonen emakumeekiko dituzten botere-harremanetan oinarritzen da.



5.2. SARTZEN ARI DA GENERO-INDARKERIAREN DISKURTSO NEGAZIONISTA GAZTEEN ARTEAN?

FADaren Nerabezaroari eta Gazteriari buruzko Reina Sofía Zentroko 2021eko Gazteria eta Generoa Barometroaren arabera, bost gizon gaztetatik batek uste du genero-indarkeria asmakuntza ideologikoa dela, hau da, duela lau urteren bikoitzak. Joera-aldaketa horrek bat egiten du eskuin-muturrak instituzioetan izan duen goranzko joerarekin.

Azken urteetan zehar, gero eta emakume gehiagok dute beren burua feministatzat; oso datu positiboa da, baina, aldi berean, kezka-garria da gizonen artean kontrako joera hedatzea; izan ere, gero eta kritikoagoak dira feminismoarekin eta generoindarkeriarekin. 2021ean larriagotu egin da joera hori.

Genero-indarkeria arazo sozial larritzat jotzen da: nesken artean % 72,4 izatetik % 74,2 izatera igaro da; baina, mutilen artean, % 54,2 izatetik % 50,4 izatera jaitsi da.

GAZTERIA ETA GENERO-INDARKERIAREN PERTZEPZIOA.




DENA EZ DA NEGATIBOA, GAZTERIAK AURRERA EGITEN DU BERDINTASUNAREN ALDE:


2017tik 2021era arte, beren burua feministatzat duten emakumeen ehunekoa % 46,1 izatetik % 67,1 izatera igaro da, eta gizonen ehunekoa % 23,6 izatetik % 32,8 izatera.

BAINA


BAINA ADI EGON BEHAR DUGU. DISKURTSO NEGAZIONISTAK GAZTEEN ARTEAN SARTZEN ARI DIRA, BEREZIKI, MUTILEN ARTEAN:




PROBOKATZAILEA
Gizonen % 6,9k uste du indarkeria emakumeek probokatzen dutela.




INDARKERIA IKUSEZIN BIHURTU
% 20k uste du existitzen ez den asmakuntza politikoa dela.



EZ DA ARAZO BAT
% 15,4k uste du indarkeria ez dela arazo intentsitate baxukoa baldin bada.



Gizon nerabeen eta gazteen (15 eta 29 urteren artean) % 20k uste du generoindarkeria ez dela existitzen eta "asmakizun politikoa" dela.



10 emakume gaztetatik 7 baino gehiagok uste du desparekotasun handia dagoela; gizonen artean, 10etik 4k.

NESKEN TESTIGANTZAK.

“Feminismoaren inguruko txio hura jarri nuenean, mutil batek diskoteka batean bortxatuko ninduela edo ez dakit zer esan zidan.”

“Gizonek egiten dituzte iruzkin erasokor eta mingarrienak.”

“Batzuk zurekin sartzen dira, eta esaten dizute: ‘Ez da horrenbesterako, txiste bat baino ez zen’ edo ‘Zer axola dizu, txiste bat besterik ez da’. Txistea den arren, arazo soziala da.”

“Gaur egun adierazpen-askatasuna existitzen da, eta, noski, iritzi guztiak ez dituzu gustuko izango [...] Sare sozialetan denetatik aurkitzen dugu.”

“Eduki lizuna duten mezuak jaso ditut, guztiak gizonenak.”

Matxismoa konplexurik gabe: “Ikusi dut lehen jendeak kontu handiagoa zuela. Nire inguruan behintzat. Gehiago kostatzen zitzaien ‘zoroak zarete guztiak’ edo ‘dena asmatzen duzue’ gisako diskurtsoak ematea edo genero-indarkeriari buruzko txantxak egitea. Lehen gehiago kostatzen zitzaien (...) Orain esango nuke ausardia handiagoa dutela mota horretako diskurtsoak egiteko”.

“Nik uste batzuek horrela hitz egiten dutela badakitelako ez direla bakarrik geratuko, norbait gehiago ere ados egongo dela; libre sentitzen dira nahi dutena esateko, eta horregatik ez dute beldurrik gogoak ematen diena esateko”.



5.3. PRINCIPALES BULOS Y NEGACIONISMOS MACHISTAS

Adierazpen negazionista:

“EZ FEMINISMORIK, EZTA MATXISMORIK ERE: BERDINTASUNA”.



Erantzunak:

- “Feminismoak bizitzak salbatzen ditu, eta matxismoak hil egiten du”.
- “Feminismoa berdintasuna da”.
- “Matxismoa ez da berdintasuna, gizonak emakumeen gainetik daudela uste duen ideologia baizik”.
- “Feminismoak emakumeen giza eskubideak eta pertsonen arteko berdintasuna defendatzen ditu”.
- “Feminismoak sistema eraldatu nahi du”.
- “Feminismoa ez dago gizonen aurka, gizarteak sortzen duen matxismoaren aurka baizik, eta gizarte horretan pribilegioak galdu nahi ez dituzten gizonen aurka.”



Adierazpen negazionista:

“Gaitasunen (fisiko handiagoa, oso alde txikia adimenean) eta lehentasunen (gizonak sistemati- zatzaileagoak dira, gauzei orientatuta; emakumeak enpatikoagoak eta beste pertsona batzuei orienta- tuta) diferentzia horien bidez azaltzen da lanaren banaketan dauden desberdintasunak, bai eta fami- lia eta gizarteko rolak ere”.


Erantzunak:

Gina Rippon neurozientzialari kognitiboaren arabera, giza garuna ez dago zuzenean lotuta “generoarekin”, munduarekin eta hazten garen inguruarekin baizik. Jaiotzen garen momentutik, “gizonezkoen” eta “emakumezkoen” jarrerak modu lausoan markatzeak moldeatzen ditu horrelako jarrerak eta gaitasunak.

Iturria: [BBC](#)

Momentuz ez da ikerketa zientifiko zehatzik egin erakusteko gizo- nezkoak emakumezkoak baino azkarragoak diren edo emakumezkoak gizonezkoak baino azkarragoak. Badaude, jakina, gizonak baino azkarragoak diren emakumeak, baita emakumeak baino azkarragoak diren gizonak ere, baina, oro har, ezin dugu esan batzuk besteak baino azkarragoak direla.

Iturria: [BLOG INVESTIGACIÓN Y CIENCIA.](#)

**Adierazpen negazionista:**

“Genero-indarkeria ez da existi- tzen, familiaren barneko/etxe- ko indarkeria da”.

Erantzunak:

- Genero-indarkeria emakumeen aurkako indarkeria da, emakume izate hutsagatik eta patriarkatuak sustatutako desparekotasun-egoeran egoteagatik. Etxeko eremuan gara daiteke, edo ez.
- Gizonek ezin dute genero-indarkeria pairatu, baina bai etxe-ko indarkeria: etxe-ko indarkeria, genero-indarkeria ez bezala, ez da egiturazko desparekotasunean oinarritzen.
- Genero-indarkeriaren eta etxe-ko edo familia barneko indarkeriaren arrazoiak oso ezberdinak dira, eta horregatik modu independentean arautu behar dira.

Erantzunak:

Espainian, azken hamarkadan aur- keztu diren genero-indarkeriako mi- lioi eta erdiko salaketetatik % 0,007 izan dira faltsuak.

“Faltsuak dira genero-in- darkeriako salaketen % 80”.

2020. urtean, Estatuko Fiskaltza Nagusiko datuen arabera, jaso ziren 150.000 salaketa ingururen artean, ez zen salaketa faltsurik egon. Gainera, salaketa fal- tsuen datuak ezdeusak izan dira azkeneko hamaika urteetan zehar, eta horie- tatik faltsuak izan dira urtean 6 eta 17 salaketa inguru.

Beste delitu-mota batzuetara lotutako askoz salaketa faltsu gehiago daude, eta horrek ez du esan nahi delitu horietako biktimak babesteari uzten zaiola. Sakelakoa lapurtzea da salaketa faltsurik ohikoena.

«Emakume batek bere bikotekideari salaketa jartzen badio genero-indarkeriagatik, gizon horrek ziegan egingo du lo gau horretan bertan».

Erantzuna:

Pertsona baten aurkako edozein motatako salaketa jartze-ko, poliziak egiaztatu behar egin du gertatutakoaren aldeko arrasto nahikoa dagoela. Ziegara joango da, baldin eta indarkeria egon dela ziurtatzen bada. Arazoa kontrakoa da; izan ere, askotan ezin da egiaztatu, eta emakumea babesik gabe gelditzen da.

“Erasotzaile gehienak etorkinak dira”,
“Etorkinen herrialdeetako kultura askoz matxistagoa da”.

Respuestas:

Kultura guztiak dira matxistak. Guztietan dago emakumeen aurkako indarkeria- eta bazterketa-kultura.

Etxeko eta genero-indarkeriaren aurkako behatokiaren arabera, espainiarrak izan ziren 2020an feminizidioak egin zituzten gizonetatik % 69,6, eta atzerritarrak % 30,4.

BESTELAKO BALIABIDEAK GAIA-REN INGURUAN IRAKURTZEKO, IKUSTEKO ETA SAKONTZEKO

Irakurketa: Mitos y realidades. El Feminismo ¿Es el feminismo dominante un movimiento liberador para la mujer?

Irakurketa: La musa de Vox contra las feminazis

Irakurketa: La extrema derecha que dice defender a las mujeres

Irakurketa: Las mujeres pagamos un precio muy alto por estar en internet

Bideoa: Mitos y realidades del feminismo



14 “Mundua eta biok”

● Helburua:

- Lantzea generoaren sozializazio desberdintasunaren inguruko emozio, biziaren eta hausnarketak.

● Beharrezko baliabideak:

A3 orriak eta errotuladoreak.

● Garapena:

1. Urratsa. Pertsona guztiei eskatuko diegu toki erosoan aukeratzea eta bertan kokatzea orri batekin eta errotuladoreekin. Jardueraren helburua da beren burua margotzea, eta pertsonaren marrazkiaren barnean hitzak eta ikurrak ipintzea beren izaera eta bizitzaren parte izatera igaro diren generoari lotutako ikaspen, mezu eta mandatuekin. Marrazkiaren kanpoko aldean berdin egingo dute generori lotuta entzun dituzten baina barneratu ez dituzten mandatuekin.

2. Urratsa. Ondoren, nahi duten guztiek aukera izango dute marrazkia, sentimenduak eta hausnarketak partekatzeko. Parte hartuko dute, baina epaitu gabe, eta komunean dauden ezaugarriak seinalatuko dituzte. Kointzidentzia horiei izena jarriko diegu, sistema patriarkalak gure bizitzetan duen eragina ikusteko; pertsona dena politikoa denarekin lotuko dugu, munduko herritar guztien ikuspegitik. Garrantzitsua da erakustea norbanakoa eta gizartea eraldatzeko aukera.



1 ORDU

Iturria: [Toca Igualdad. Guía para la movilización social. InteRed.](#)

15 Gero eta heterosexual gutxiago gara?



● Helburua:

- Identifikatzea datu faltsuetan edo iturri ez fidagarrietan oinarritutako diskurtso negazionistak erabiltzen dituzten pertsonen estrategiak.
- Aztertzea nola oinarritzen diren negazionismoak gorroto-diskurtsoetan.

● Beharrezko baliabideak:

Ordenagailua, proiektorea, pantaila eta Interneteko sarbidea.



2 ORDU

● Garapena:

1. Urratsa: Gogorarazi egingo dizkiegu diskurtso negazionistak defendatzen dituzten pertsonen ezaugarriak eta estrategiak (ikusitako taula 120. orrialdean), eta eskatuko diegu horiek kontuan izatea bideoa ikustean.

2. Urratsa: Bideoa ikusi: [“Cada vez somos menos heterosexuales”](#)

3. Urratsa: Hurrengo galderak proposatuko ditugu teoria negazionistak erabiltzen dituzten estrategiak eta tresnak identifikatzen laguntzeko. Galderak planteatzen ditugun heinean, bideoa geldituko dugu, edo galdera bakoitzari erantzuna ematen dion zati zehatza jarriko dugu berriz ere:

1 galdera: Zer iturri aipatzen ditu? Fidagarriak al dira?

Irakasleentzako oharrak: Iturri gisa multinazional batek Ingalaterran eta AEBko Unibertsitate kristau batean egindako ikerketak erabiltzen dira. Datu horiek erabilgarriak al dira Espainian? Gauza bera gertatzen al da munduko herrialde guztietan?

2 galdera: Nola aztertzen ditu datuak? Zerbaitek atentzioa eman al dizue?

● Iturria: guk geuk egina

Irakasleentzako oharrak: manipulazioa, hain adierazgarriak ez diren datuetan jartzen dute arreta (pertsona homosexualak edo bisexualak), baina gizarteko ehunekorik altuena heterosexual gisa identifikatzen da. Ondorio gisa esaten du Mendebaldean hedatutako joera dela, baina aipatutako ikerketak ez dira ondorio horietara iristen.

3 galdera: Uste al duzue kezka edo beldurra sortu nahi duela jendearengan?

Irakasleentzako oharrak: Gazteriaren doktrinamenduz hitz egiten amaitzen du, adingabekoen galbideratzeaz. Gazte askok idatzi diotela dio, baina nola jakin dezakegu hori egia ote den?

4 galdera: Nortzuk aurkezten ditu biktimak gisa? Uste al duzue pertsona homosexualen aurkako mezu diskriminatzailea bidaltzen ari dela?

Irakasleentzako oharrak: Biktima bihurtzen dituen boterearen posizioan dauden pertsonak (heterosexualak)

Erabaki al daiteke homosexuala, heterosexuala edo bisexuala izatea?
Zer arazo egongo litzateke, gero eta pertsona homosexual gehiago egongo balira?

16 Kontuz genero-indarkeriaren negazionismoarekin!

● Helburua:

- Ezagutzea genero-indarkeriaren aurkako diskurtso negazionistak.
- Ulertzea diskurtso negazionistek indarkeria-mota hau pairatu duten edo pairatzen ari diren emakumeei min eman diezaieketela.
- Genero-indarkeria eta gure gizartean existitzen diren beste indarkeria-mota batzuk desberdintzen ikastea.
- Eskuratzea negazionismoei aurre egiteko estrategiak eta baliabideak.

● Beharrezko baliabideak:

Interneteko sarbidea, ordenagailua, proiektorea, sakelakoak edo tabletak ikasleek bideoa ikusteko eta proposatutako galderak erantzuteko.

● Garapena:

- 1. Urratsa:** Genero-indarkeriaren eta familia barneko indarkeriaren definizioak erreparatu ditugu, horien arteko desberdintasunak argi gera daitezten. Azalduko ditugu mota honetako diskurtso negazionistetan erabilitako arrazoi eta estrategia nagusiak, bai eta horien aurkako arrazoiak ere. Azken horiek ongi barneratu behar dituzte, eta taldearen artean adostu, bideoa ikusterakoan zalantzarik egon ez dadin.
- 2. Urratsa:** [Bideoa jarriko dugu: Entrevista a Ortega Smith](#) (2:23tik 8:47ra)
- 3. Urratsa:** Hurrengo galderak egingo ditugu. Guztion artean erantzun ditzakegu, edo taldeak egin ditzakegu beren artean lan egiteko eta gero guztion artean komentatzeko. Posible da bideoko parte batzuk erreparatu behar izatea.

Genero-indarkeriaren aurkako zer ohiko baieztapen aurkitu duzue?

Genero-indarkeriaren negazionismoaren zein baliabide eta elementu aurki ditzakezue?

Zer iruditzen zaizue elkarrizketatzailearen papera? Egokia al da? Bestelako jarrera eduki beharko luke?

Zer ondorio-mota izan ditzake mota horretako negazionismoak?

Nola azalduko zenukete gizon horri ez dela berdina emakumeen aurkako indarkeria eta familia barnekoa?



Iturria: lan propioa.

17 Genero-indarkeriaren kontrako diskurtso negazionistak eta antifeministak dituzten youtuberak.

● Helburua:

- Aztertzea "youtuberek" sare sozialetan erabiltzen dituzten genero-indarkeriaren aurkako arrazoiak.
- Arrazoiak sortzea diskurtso negazionistei aurre egiteko.

● Beharrezko baliabideak:

Ordenagailua, proiektorea, pantaila eta Interneteko sarbidea.

● Garapena:

1 Urratsa. Jardueraren aurkezpena: azalduko diegu bi youtuber ezagunen bideo bat ikusiko dugula: Jordi Wild edo Giorgiorenena, eta Roma Gallardorena. Aldez aurretik, galdetuko diegu ezagutzen ote dituzten, eta gustuko dituzten. Horren ondoren, proposatuko diegu bi talde egitea eta haiei buruzko informazioa bilatzea: nortzuk diren, zer egiten duten sare sozialetan, zer gaiei buruz hitz egiten duten... Taldeetan eztabaida irekiko dugu: Zer uste duzue youtuber hauei buruz? Uste al duzue fidagarriak direla? Zergatik? Iruditzen al zaizue gustuko dutela polemikaren bitartez atentzioa ematea?

2 Urratsa: Bideoak ikusiko ditugu, eta arrazoi negazionistak identifikatuko ditugu. Helburua da identifikatzea genero-indarkeriaren diskurtso negazionistak defendatzen dituzten pertsonen erabiltzen dituzten estrategiak eta baliabideak.

○ HABLANDO DE LA LEY DE VIOLENCIA DE GÉNERO Y LA LEY HOMBRE/MUJER CON ROMA GALLARDO | The Wild Project. Jordi Wild.

○ PREGUNTANDO A FEMNISTAS 8M 2021 PRIMERA PARTE. Roma Gallardo.

3 Urratsa: Negazionismoei aurre egiteko arrazoiak sortzea. Ikasleei proposa dakieke generoindarkeria existitzen dela defendatzen duten argudioak aurkeztea, rol-playing bidez, mural batean, bideo batean... Ondorio gisa, Irantzu Varela: ["Respuestas feministas para cuñaos"](#) eta [VÍDEO VIRAL de ROMA GALLARDO](#) bideoak jar daitezke.



06

KLIMA-ALDAKETAREN NEGAZIONISMOA

Komunitate zientifikoa ados egon arren klima-aldaketaren ebidentziaren inguruan, oraindik ere erresistentzia politiko, ideologiko eta ekonomiko handia dago, eta Lurraren berotzearen aldeko ekimenak gelditzen saiatzen da.

Arriskutsuak dira Lurraren berotzearen kontrako jarrera horiek, beren helburua zantzaz sortzea eta egia isilaraztea baita, eta, ondorioz, blokeatu egiten dira klima-aldaketa maila desberdinetan gelditzeko neurriak, ekimen-faltagatik.

Ebidentzia zientifikoa handitzen ari da, eta gero eta zailagoa da errealitatean gertatzen ari dena ukatzea; ondorioz, aditu kontserbadore eta libertario askok estrategia aldatu dute. Horrela sortu dira klima-aldaketa "ukatu gabe ukatzen duten" talde boteretsuak. Planeta berotzen ari dela ukatu gabe, tenperaturen igoeraren ondorio negatiboak modu kezagarrian puzten direla diote. Egoeraren larritasuna zalantzen jartzen dute, eta ekimenik eza sustatzen dute.

Alexandria Ocasio-Cortezek climate delayersi buruz hitz egin zuen, 2019an: pertsona horiek klima-aldaketaren aurka zerbait egin behar dela onartzen dutela dirudien arren, ez dute ulertzen zergatik den horren premiazkoa. Pertsona horiek ez dira klimaaldaketa guztiz ukatzen dutenak baino hobeak. Ez dira argi dagoena ukatzen duten pertsona xelebreak; antolatu diren pertsonak, enpresak eta instituzioak dira, eta gehiago atzeratu ezin den eraldaketa moteldu nahi dute. Iturria: [La Marea](#).



6.1. ZEINTZUK DIRA KLIMA-ALDAKETAREN ETA BEROTZE GLOBALAREN ARRAZOTIAK ETA ONDORIOAK??

Klima-aldaketaren erantzuleak gizakiak gara eta guk geuk isurtzen ditugun eta planeta berotzen duten berotegi-efektuko gasak. Gasik ezagunena CO2 da, eta horrek sortzen du berotze globalaren % 63; baina bestelakoak ere badira; hala nola, metanoa edo oxido nitrosoa.

7 ARRAZOI NAGUSIAK

1 ENERGIAREN SORRERA:

Elektrizitatea eta beroa sortzeko, erregai fosilak erretzen dira; hala nola, ikatza, petrolio eta gas naturala; horiek eragiten dute munduko isuriaren ehuneko handi bat. Elektrizitate gehiena erregai fosilen bidez sortzen jarraitzen dugu; soilik laurden bat sortzen dugu haize-, eguzki-energiatik edo beste motatako iturri berriztagarrietatik.

2 PRODUKTU MANUFAKTURATUAK:

Isuriak sortzen dituzte industriaren eta manufakturen sektoreek; izan ere, erregai fosilak erretzen dira, batez ere, burdina, altzairua, elektronikak, plastikoak, arropa eta beste ondasun batzuk sortzeko. Meatzaritzak eta bestelako industria-prozesuek ere gasak isurtzen dituzte.

3 BASOAK BOTATZEA:

Basoak mozten dira baserriak edo larreak sortzeko, edo bestelako arrazoiengatik. Zuhaitzak moztean, barnean gordetzen zuten karbonoa isurtzen da. Basoetan karbono dioxidoa metatzen denez, horiek botatzen badira, naturak ezin die isuri horiei eutsi, eta atmosferara igarotzen dira.

4 GARRAIOA:

Erregai fosilei esker funtzionatzen dute auto, kamioi, itsasontzi eta hegazkin gehienak. Ondorioz, garraioa da negutegi-efektuko gasen sorreraren kausa nagusietako bat, batez ere, karbono dioxidoarena. Errepideko ibilgailuak dira nagusi, baina itsasontzi eta hegazkinen isuriek gora egiten jarraitzen dute.

ELIKAGAIEN EKOIZPENA

5

Elikagaien ekoizpenak energia behar du, nekazaritzako ekipamenduak edo arrantzaontziek funtziona dezaten, eta, oro har, energia hori erregai fosilen bidez lortzen da. Laborantzak ere isuriak sortzen ditu, esaterako, ongarriak edo simaurrak erabiltzean. Ganaduak metanoa sortzen du, hau da, negutegi-efektuko gas indartsua. Ontziratzearen eta elikagaien banaketaren ondorioz ere sortzen dira isuriak.

Europako biztanleek gaur egun kontsumitzen duten haragiaren erdia kontsumituko balute, Lur planetan isurtzen diren negutegi-efektuko isurien % 25 eta % 40 inguru ekidingo genuke.

6

ERAIKINEN ELEKTRIZITATE-HORNIDURA:

Munduan, elektrizitatearen erdia baino gehiago kontsumitzen da bizitzeko eraikinetan eta eraikin komertzialetan. Ikatza, petrolio eta gas naturala erabiltzen jarraitzen dute kalefaziarako edo hozte-sistemarako, eta, ondorioz, negutegiefektuko gasak isurtzen dituzte.

GEHIEGIZKO KONTSUMOA:



7

Negutegi-efektuko gasak areagotzen dituzte etxea, energia erabiltzeko modua, lekualdatzeko modua, elikagaiak eta sortzen ditugun hondakinek.

Halaber, eragina du arropa, elektronikak, plastikoak eta mota horretako ondasunak kontsumitzeak.

Iturria: [Naciones Unidas. Acción por el Clima](#)





6.2 NORBERAREN EKINTZAK ETA MUNDU-MAILAKOAK (2 ZUTABE). ZER EGIN DEZAKEGU KLIMA-ALDAKETA GELDIARAZTEKO?




- Argi naturala aprobetxatu.
- Murriztu, birziklatu eta bererabili.
- Erostera joaterakoan ohialezko poltsa eraman.
- Autoa erabili beharrean garraio publikoa erabili.
- Dutxa azpian zauden denbora gutxitu.
- Erabiltzen ez dituzun gailuak itzali.

"KLIMAREN ALDEKO MOBILIZAZIOETAN PARTE HARTU, TOKIHO, NAZIOHO ETA NAZIOARTEKO AGENDA POLITIKOA ETA EKONOMIKOA ALDATZEKO."



- Sasoiko produktuak aukeratu.
- Gehiegizko paketatzea saihestu.
- Kontsumo txikiko bonbillak erabili.
- Energiak berriztagarriak erabili.



¡¡JUSTIZIA KLIMATIKOA, ORAIN!!!

- Murriztu haragia jatea.
- Moda ekologikoa.
- Zure basoak zaindu.



- Berdez pentsatu.
- Ur kontsumoa murriztu.
- Bertoko produktuak erosi.

¡¡PLASTIKO GEHIAGO DAGO ZENTZUA BAINO!!!



6.3 NORK ATERATZEN DU ONURA KLIMA-ALDAKETAREN NEGAZIONISMOTIK?

Batzuek klima-aldaketa eragiten duten erregai fosilak ordezkatu nahi dituzte negutegi-efektuko gasik isurtzen ez duen energiarekin, hala nola, haize- edo eguzkienergiarekin. Horren aurka daude klima-aldaketa ukatzen dutenak.

“Ekologismoa mugimendu politikoa da: horren helburua da Mendebaldeko gizartearen aurrerapenak geldiaraztea, eta herritar eta enpresak derrigortzea merkeagoa eta erabilgarriagoa den energia-iturriak erabiltzeari uztea edo horien erabilera gutxitzea” Domingo García, Objektibismoaren Aurrerapenerako Nazioarteko Elkartearen zuzendaria.

“Gure fundazioan pentsatzen dugu neurritz gainera jarrera dagoela klima-aldaketaren inguruan; guk ez dugu uste klima-aldaketa gizarte-ekintzaren ondorio dela soilik, eta, edozein kasutan, uste dugu klima-aldaketa ezin dela aitzakia izan askatasun ekonomikoa murrizteko eta estatuek merkatuan esku hartzeko”. Juan Pina, Askatasunaren Aurrerapenerako Fundazioko idazkari nagusia.

“Erregai fosilen konpainia indartsuenek, 2001. urtetik aurrera, 251 milioi euro inbertitu dituzte Europar Batasunari presioa egiteko klimari buruzko politika gelditu edo alde batera utz dezaten, ExxonMobil eta Shell barne” Europa Korporatiboaren Behatokia, Food & Water Europe, Friends of the Earth Europe eta Greenpeacen txostena.




[Te MINTIERON en la escuela](#), klima-aldaketaren negazionismoari buelta emateari buruzko bideoaren argazkia eta [Dalas Review](#).

6.4. KLIMA ALDAKETAREN NEGAZIONISMOAREN ADIBIDERIK OHI-KOENAK:

Adierazpen negazionista:

“LURRAREN HISTORIAN ZEHAR BESTELAKO KLIMA-ALDAKETAK GERTATU DIRA”.



Erantzuna:

Noski, erregistroetan ikus daiteke. Hala ere, ez du zentzurik esateak gizakiak ez garela klima-aldaketa honen errudunak; antzekoa litzateke esatea “basosuteak ez ditugu guk sortzen; aspalditik sortzen dituzte tximistek”.

Adierazpen negazionista:

“Nola existituko da klima-aldaketa hotza egiten badu?”

Erantzuna: Hotz gutxiagok ez du esan nahi hotzik ez egitea.

Lurra berotzen den heinean, gero eta eskasagoak izango dira egun hotzak, euritsuak eta elurtsuak, baina ez dira desagertuko. 1950etik, ohikoagoak dira munduan oso egun beroak; egun hotzak, aldiz, arraroagoak.

Adierazpen negazionista:

“Klima-aldaketa prozesu naturala da: gizakiak ez gara horren erantzule”

(Negazionismoaren bertsio deskafeinatua: bada, baina ez gara horren erantzule)

Erantzuna:

- Zientifikoki konprobatu da negutegi-efektua dela klima-aldaketaren eta berotze globalaren arrazoi nagusia. Gas-mota horiek lotura dute atmosferan pilatzearekin eta munduko tenperaturen igoerarekin.

Adierazpen negazionista:

“Zientzialari guztiek ez dute uste klima-aldaketa existitzen dela”.

Erantzuna:

Komunitate zientifikoaren % 97k uste du fenomenoak existitzen dela eta gizakien jardura dela horren sorreraren arrazoa.

Adierazpen negazionista:

“Hiruzpalau gradu gehiago ez da horrenbesterako”.

Erantzuna:

Bai, 2 graduk oso ondorio larriak ekar ditzake munduan: nabarmenagoak dira lehorteak; gogorragoak dira bero-olatuak; indartsuagoak eta denboran zehar okerrago banatuta daude euriteak; uholdeak; gero eta bortitzagoak dira urakanak; itxasoa berotzen ari da, eta koralezko arrezifeak desagertzen; glaziarrak urtzen ari dira; basamortuak areagotzen; milioi bat espezie daude arriskuan; elikagaien falta areagotzen ari da, eta, ondorioz, herritarrak lekualdatzen ari dira... Pentsa ezazu: zero graduren eta gradu baten arteko aldea izotza eta uraren arteko aldea da.

200 milioi pertsonen bizitokiak ur-mailaren azpian geldituko dira 70 urte barru. ([National Geographic](#))

JARDUERA 18
Ikus 98 orrialdean

ZER GERTATZEN DA
KLIMA-ALDAKETAREKIN?

BESTELAKO BALIABIDEAK GAIAREN INGURUAN IRAKURTZEKO, IKUSTEKO ETA SAKONTZEKO

- **Bideoa:** [5 ARGUMENTOS frente al NEGACIONISMO del Cambio Climático](#)
- **Irakurketa:** [El cambio climático: negacionismo, escepticismo y desinformación](#)
- **Irakurketa:** [De los negacionistas a los retardistas](#)
- **Argazkiak:** [El cambio climático en imágenes](#)



18 Zer gertatzen da klima-aldaketarekin?

○ Helburua:

Ezagutzea klima-aldaketaren negazionismoaren argudio nagusiak eta horien aurkako erantzunak.

○ Beharrezko baliabideak:

Ordenagailua, proiektorea, pantaila eta Interneteko sarbidea.

○ Garapena:

1. Urratsa. Hasteko, azalduko dugu zertan datzan klima-aldaketaren negazionismoa, no-rentzat den onuragarria eta zeintzuk diren horren argudio nagusiak. Hurrengo bideoa ikus dezakegu, adibide ohikoenak zeintzuk diren eta komunitate zientifikoaren gehiengoak horiei emandako erantzuna ezagutzeko: [5 ARGUMENTOS frente al NEGACIONISMO del Cambio Climático](#)


2. Urratsa. Jarraian, honako bideo hau ikusiko dugu: [laSexta columna](#)

3. Urratsa. Eztabaida. Ezagutzen al zenituzten klima-aldaketari buruzko adierazpen-mota horiek? Uste al duzue horietakoren bat egia dela? Zein? Zer pentsatzen duzue orain? Zer ondorio izan dezake gizartean klima-aldaketaren inguruko gezurrak zabaltzeak?



2 ORDU

Iturria: lan propioa





07

COVID-19AREN NEGAZIONISMOA**7.1. Infodemia**

Infodemia edo informazio gehiegi izatearen ondorioz, eta informaziorik ezarekin gertatzen den bezala, ez dakigu zer sinetsi behar dugun, eta fenomeno horrek pisu handia izan du COVID-19aren pandemiaren garaian. Azken urteetan zehar, sare sozialak espazio aproposa izan dira gutxi batzuen "fake news", gezurrak edo ideia konspiranoikoak sortzeko. Gainera, pandemiaren ondorioz, Twitter, Youtube, Facebook eta Instagram ez ezik, mezuak bidaltzeko plataformetan (WhatsApp edo Telegram) ere diskurtso negazionistak elikatu dira bost kontinenteetan zehar, eta arbuia egin dira gobernuek birus ezezaguna geldiarazteko hartutako neurriak.

Pandemia hasi zenetik eta gaur egun arte, sare sozialak osasun-neurrien eraginkortasuna, txertoak edo birusa bera existitzea zalantzan jartzen dituzten mezuz josi dira.

Pixka bat arakatzen badugu, aurkituko dugu influencer batzuek zalantzan jartzen dutela maskararen erabilera, edo hura ez eramateak besteengan izan dezakeen eragina. Horrez gain, mantal zuria daramaten pertsonak agertu dira PCR proben eta txertoen eraginkortasuna ukatzen. Mugimendu honek sare sozialak erabiltzen ditu ideiak zabaltzeko.



7.2. Nork ateratzen du onura COVID-19aren negazionismotik?

Zientifikoki probatu ez diren medikamentu alternatiboen salmenta: Txertoen aurkako mugimenduen erreferentziazko webgunean mota guztietako gaitzetarako (ez soilik Covid-19rako) aldez aurretik probatu ez diren medikamentuak zuzenean erosteko aukerak eta eskaintzak daude (kontrolik gabe eta medikuaren preskripziorik gabe).

Konpentsazio handiak: Covid-19aren txertoari (edo beste edozein txertori) lotutako albo-ondorio larriak salatzea mota askotako argumentuekin: ikerketa gutxiegi, goizegi erabiltzen hasi izana, oraindik azertu gabeko arriskuak, interes komertzialak...

Sare sozialak: Txertoen aurkako mezuei erantzuten dieten pertsonak hauteskundeetako interes-talde bihur daitezke, sendagai alternatiboen balizko bezero, produktu erreal edo politikoren baten kontsumitzaile, eta abar. Izan ere, datu-base horiek kudeatzea (produktu baten propagandaren eskura dauden dozenaka milioi kontaktu) itxuraz hutsala den txio bat partekatzearen edo iruzkin bat onartzearen ondorioetako bat da.

Arrakasta azkarra: Txertaketaren edo txertoen kontrako muturreko jarrerak fama handia eman diote minutu batzuetan zehar mota askotako pertsoneri, eta jendearen edo hedabideen atentzioa erakarri dute. Pertsona horiek dira ohiko petrikiloa, tertuliakideak edo osasun-arloko langileak. Hedabideen amu erakargarria da haizearen kontra joatea, eta erraz aurkez daitezke “demokrazia informatibo” edo “iritzi guztiak errespetatu behar dira” ideia gisa.

JARDUERA 19

Egia edo gezurra? Mahai-jokoa. Deskargatu:
[ARGAZKIA JARRI!](#)



7.3. COVID-19aren negazionismoaren ohiko adibideak:

Adierazpen negazionista: “Bitamina gehigarriak edo mineralak hartzeak COVID-19a sendatzen du”.

Erantzuna: Ez da egiaztatu mota horietako gehigarriak hartzea koronabirusaren aurkako tratamendu eraginkorra dela.

Adierazpen negazionista:



Erantzuna:

Osasun-arloko langileek hamarkadak daramatzate maskarak erabiltzen, eta egiaztatu da ez dutela gure organismoan eragiten CO2-aren bidezko intoxikaziorik ez eta oxigeno faltarik ere. Maskara da arnasbideetatik kutsatzen diren birus guztien transmisioa ekiditeko tresnarik eraginkorrena.

Adierazpen negazionista: “Pandemia 5Garen hedapenaren ondorio izan da”.

Erantzuna: OMEk adierazi du, “Birusak ez dira irrati edo sakelako telefonoen uhinetan zehar garraiatzen”. Izan ere, herrialde askotan zabaldu da birusa sakelako 5G uhinen bidez transmititzen dela.

Adierazpen negazionista: “Birusa laborategi batean sortu da munduko gainpopulazioa txikitzeko”.

Erantzuna: SARS-CoV-2aren sorrera ez dugu oraingoz ezagutzen. Orain arte, komunitate zientifikoa bat dator eta adierazi du jatorririk posibleena zoonosia izatea; hau da, birusa modu naturalean transmititzen da animalietatik gizakietara, eta alderantziz.

Adierazpen negazionista: “Txertoek mikrotxipak dituzte gu kontrolatzeko” edo “populazioa antzu bihurtzeko metodoa da”, etab.

Erantzuna: Txertoaren eraginkortasuna epe ertainean ikusiko dugu, eta txertoen erabilgarritasunaren eztabaidatik haratago, mota horretako argudioak sortu dituzten pertsonak konspirazio-teoriekin itsututa daude, eta uste dute “hautatuak” izan direla edo gainerakoak baino “azkarragoak” direla; haize kontrara doan komunitate berezi baten parte sentitzen dira.



08

GAZTEEN AKTIBISMOA BULTZATZEN

Marko-aldaketa

Gure erronka da alternatiba guztiz berriak sortzea eta bestelako narratiba eraldatzaile bat aurkitzea, jarrera negazionistekin eta gorrotodiskurtsoekin usteldu ezin daitekeena. **MARKOAK BEHAR DITUGU, BAINA ONAK**, berdintasunaren, justizia globalaren, zaintzaren, ingurumenaren, eskubideen defentsaren, eta abarren aldeko balioak zabaltzeko.

Marko kognitiboak errealitatea ulertzeko erabiltzen ditugun ereduak dira. Askotan, ikasita ditugun markoak mugatu egiten dute alternatibak irudikatzen ditugun gaitasuna. Baina markoak guk eraikitzen ditugu, eta, beraz, alda daitezke. Nola?

1

LOVERS pertsonak identifikatzen ditugu (jada konbentzituta daude), bai eta **HATERak** (ez dute iritziz aldatzen) eta **ANBIBALENTEAK** ere (iritzia eta markoa alda dezakete).

2

Dauden diskurtsoak identifikatzen ditugu; horiek eraldatzaileak ez diren esparruetara igortzen gaituzte, gida honetan ikusi ditugun negazionismo guztiek bezala.

3

Narratiba berriak sortzen eta hedatzen ditugu.

AKTIBATU ZAITEZ— AKTIBATU ZURE INGURUA



8.1. Zer egin dezakegu? Aktibismo-motak

ktibista da aldaketaren aldeko kanpaina baten barne eta horren alde parte hartzen duen pertsona ; oro har, gai politiko eta sozialen inguruan. Aktibistek gorroto-mezuak itxaropenezko bihurtzen dituzte. Sentsibilizatu, eta kontzientzia pizten dute.

Hainbat modu daude aktibista izateko, eta hainbat erakundetan boluntario izan gaitzke: GKE-etan, hiriko edo auzoko erakundeetan (gazteenak, etorkinen aldekoak, feministak, ekologistak, animalistak...), edo gure erakunde propioa ere sor dezakegu.

Honako hauek izan ohi dira aktibismoaren helburu nagusiak:

- Arazo batez jabetzea (klima-aldaketa, generoaren edo etniaren ondoriozko bazterkeria, gure auzoari edo herriari eragiten dioten problematikak, etab.).
- Pertsonak kausa batera erakartzea.
- Klase politikoari edo boterean daudenei erakustea haiei begira zaudela.

8.1.1. Kaleko aktibismoa:

Aktibismo-mota hau hainbat ekimenen bidez egin daiteke: ekintza publikoak, kaleko antzerkia, manifestazioak, firmak biltzea, eserialdiak, jardunaldiak antolatzea, bai eta jai-ekitaldiak antolatzea ere.

Ekimen publiko bat antolatu nahi badugu, kontuan izan arreta emango duen zerbaite antolatu behar dugula: barre eragitea, jendea kalean geldiaraztea edo harridura sortzea. Gure helburua da jendeak, gutxienez, hitz egin edo pentsa dezala gure ekintzaren oinarria den gaiaren inguruan.

Iturria: Compass. Manual de Educación en Derechos Humanos con jóvenes

EGUNEROKO
PEDAGOGIA:

- Sentsibilizatu zure ingurunea desinformazioaren arazoaz.
- Hedatu gai batzuei buruzko egiazko datuak eta inkestak.
- Presta itzazu zure egunerokotasunean topatzen dituzun negazionisten ideiei aurre egiteko argudioak eta datuak.

JARDUERA 20
Ikus 114 orrialdean

KONTUZ, ZURI
BEGIRA GAUDE!

8.1.2. Ziberaktibismoa: AIZU, ZIBERAKTIBISMOAK BEHAR ZAITU!

Sare sozialak aproposak dira aldaketa positiboak bilatzen dituzten egoera sozialei buruzko irizkiak hedatzeko. Hala ere, Facebook, Twitter, YouTube edo Instagram eta halako sareetan ere sortzen dira hater eta trollen mezu erasokorrek eta diskriminatzaileak, eta hedapen handia lor dezakete. Horregatik, garrantzitsua da ziberaktibismoan sartzea.


Ziberaktibista bazara, aukera izango duzu, sare sozialen edo webguneen bidez, gorrotoaren, negazionismoaren eta polarizazioaren kontra jarduteko, berri faltsuak edo egokiak ez diren artikulua eta mezu bortitzak edo eduki diskriminatzailea duten albisteforoetan.

Ziberaktibista izateak esan nahi du giza eskubideen alde modu aktiboan mobilizatzea, eta Herriartasun Globalaren ikuspegian eragiteko modua da, zure ordenagailutik edo sakelakotik.

Nola egin dezaket?

LEHENIK ETA BEHIN, PENTSA EZAZU:

Sare sozialetan mezu bat idatzi aurretik, pentsatu. Mezuak min eman diezairoke pertsona edo kolektiboren bati? Mezuak eduki edo adierazpen bortitzak, matxistak edo iraingarriak al ditu? Aurrez aurre duzun pertsona bati esango zenioke sare sozialetan edo berrien foroetan esaten duzuna?



GERO, EKIN:



Gelditu katea, eta ez hedatu gorroto-diskurtsorik, negazionistarik edo berri faltsurik.

Sortu eta hedatu berri positiboak: benetako informazioan oinarritutako post edo edukia sortu, enpatia, parekotasuna eta elkartasunean oinarrituta.

Erantzun: ikusten badituzu zure lagunaren sareetan zuri edo beste pertsona batzuei min eman diezaioketen argitalpenak, erantzun, errespetuz eta haren teoria bertan behera uzten duten argudioekin.

Zabal ezazu modu positiboan; erantzuteaz ez ezik, marko berriak ere sortuko ditugu: zabaldu eta parteka itzazu hater-ek erasotzen dituzten taldeak; lagundu modu positiboan emanez haien aldeko informazio garrantzitsua eta adibideak.

Salatu: Mezu xenofobo, misogino edo gorrotozko beste edozein mezu ikusten baduzu, egin iruzkinaren eta erabiltzailearen profilarren pantaila-argazkia, gorde argazkia, eta salatu eduki mingarria sare sozial horren bidez, baita egon ohi diren gorrotoaren behatokitik ere.



¡KONTUZ! BABESTU ZAITEZ SAREEN ARRISKUEZ

Babestu zure identitatea: ez eman datu pertsonalik zure profilean; esaterako, ize-nabize-nak, helbidea, telefonoa, ikastetxea, etab.

Babestu zure kontua, zure edukia soilik ezagutzen dituzun pertsonak ikusi ahal izateko.

Sortu ziberaktibismorako soilik erabiliko duzun kontu bat, eta ez erlazionatu zure kontu pertsonalarekin. Taldean egin dezakezu lan.

Kontuz profil faltsuekin: hobe ez baduzu ezezagunekin hitz egiten; ez dakigu nor dagoen horien atzean.

Hobe argazkirik igotzen ez baduzu. Kontuan hartu manipulatu eta zure kontra erabil ditezkeela. Gainera, zuk ezagutzen ez duzun jendeak ikus ditzake argazkiak, eta, zenbait urte barru, agian, ez duzu nahi izango jendeak jakitea zer lekutan edo norekin egon zinen.

Erasotzen bazaituzte, ez sartu liskarretan; blokeatu gogaitzen zaituzten pertsonak; jarri salaketa sare sozialetako segurtasun-zerbitzuetan; eta, behar izatekotan, itxi zure ziberaktibismorako kontua.

Informazio gehiago nahi baduzu:
Guía Save a Hater. Injuve

8.2. Erreferente feministak eta klima-aldaketaren aurkako erreferenteak sare sozialetan.

Atal honetan, estrategia didaktiko gisa, sare sozialetan erreferenteak diren eta landu nahi ditugun gaien aldeko jarrera hartu duten pertsonak aipatzea proposatzen dizugu. Gidaren hasieran aipatu dugun moduan, sareak eta influencerak erabiltzeak gazteen munduarekin eta interesekin konektatzen laguntzen digu, eta era horretan errazago transmitituko ditugu nahi ditugun mezuak.

Saio batean erreferente horiekin lan egin aurretik, garrantzitsua da aukera guztiak aztertzea, eta ikustea zer erreferente egokitzen diren hoberen gure taldeko pertsonetara, bai eta saioko helburuetara ere. Gainera, proposatzen ditugun influencer askok eduki desberdina dute, eta garrantzitsua da hura ongi aukeratzea saio bakoitzera egokitzeko. Hainbat modutan egin dezakegu:

Taldean aztertzea pertsona horien edukia (artikuluak, bideoak, etab.), gai zehatz batzuei heltzeko.

Proposatzea eguneroko jardueretan jarraitzea, berriei adi egoteko eta gure taldetik edo sare sozialetan partekatzeke.

Beren sorkuntzak, binetak, idatziak eta bideoak ezagutzera eta partekatzera animatzea, edukia gure helburuekin bat datorrenean.

Erreferentetzat hartzea gure aktibismo edo ziberaktibismoko proiektuetarako: antzeko bideoak sortzeko; mobilizazio-proposamenak egiteko gure ikastegian, erakunde edo auzoan; postak argitaratzeko; etab.

- Ikerketak egitea eta erreferente berriak ezagutzea.
- Eta, azken finean, beren ekintza eta diskurtsoetan inspiratzea, betiere modu kritikoan eta gure markora egokituz.

Jarraian, lagungarri izan dakizkizukeen influencer eta erreferenteen zerrenda aurkituko duzu. Hala ere, garrantzitsua ere bada bilatzea zure inguruan dauden eta zurekin aritzen diren gazteek ezagutzen dituzten talde eta erreferenteak.



8.2.1. Erreferente feministak

Tik toker feministak:

TikTokeko erreferente feminista: [Carla Galeote](#).

TikTok aktibismoa egiteko erabiltzen duten gazte batzuk:

[@_riverss_](#): [Tag del 8M](#)

[@gabrielajulissaal](#): [Feminismo desde Perú](#).

[@grace_toca_world](#): [Justicia, respeto e igualdad](#).

[@igualdad.de_genero](#): [Lecciones sobre igualdad](#). Parte 2 [Lecciones sobre igualdad](#).

[@mujeres_al_poder](#): [¿Cómo voy a ser yo machista?](#)

[@paonel_toca](#): [Desde pequeña te lo van a indicar](#)

[@madameartichaut](#): [Un antifeminista puede intentar convencerme...](#)

Youtuber feministak:

[Psico Woman](#).

Isa Duque sexologoa eta familiako terapeuta sistemikoa da. "Psico Woman" kanalean, bere sare sozialekin batera (Facebook edo Instagram), gazteentzako interesgarriak eta egunerokoak diren edukia sortzen ditu.

[Henar Álvarez](#). Gauzak argi esaten dituen influencer feminista en eta [sareetan aurkituko duzu](#). [Feminista Ilustrada](#). María Murnau aktibista feminista, idazlea eta ilustratzailea da. Horrez gain, hitzaldiak eta tailerrak ematen ditu herrialdean zehar. Sexualitateari eta feminismoari buruzko hainbat bideo ditu.

[El tornillo de Irantzu Varela](#). 4 eta 6 minuturen arteko bideoak argitaratzen ditu plataforman, eta interesgarria izan daiteke feminismoari buruzko gai zehatzak lantzeko.

En Instagram:

[Femme Sapiens](#). Helena Sotoca da Femme Sapiens-en sortzailea; bertan, artea eta feminismoa lotzen ditu. Sortzaileak artelan klasikoak berrinterpretatzen ditu, eta testu eta caption feministak gehitzen ditu. Izugarri gustatuko zaizu.

[La Fluorra](#). Umore pixka bat. Meme eta collageen bidez, La Fluorrrak osasun mentalaz eta afektu-harremenez hitz egiten du; kritika soziala egiten du, betiere genero ikuspegitik.

[Moderna de Pueblo](#). Raquel Córcoles da kontu honen atzean dagoen kazetaria, ilustratzailea eta idazlea. Egunerokotasuneko gaiak lantzeaz gain, emakumeek pairatzen dituzten problematikez ere aritzen da komiki eta ilustrazioen bidez, eta honako gaiak jorratzen ditu, besteak beste: kaleko jazarpenak, indarkeria obstetrikoa edo kristalezko sabaia.

[Feminismoen8bits](#). Oso kontu originala. Haren sortzaileak, Laurak, bideojokoak aztertzen ditu feminismo intersektionalaren ikuspegitik.

[Sindy Takanashi](#). "Ez dut gehiegi gustuko emakume eta nesken errealitatea", dio Sindy Takanashiren profilak, eta bertan feminismoaren inguruko gaiak jorratzen ditu; hala nola, prostituzioa, abortua edo generoindarkeria.

Parekidetasunaren aldeko gazteak:

[Emakume feministen federazioa](#)
[#jovenesfeministasburgos](#).

Aktibismo feminista ere gizonen kontua da:

Gizonak matxismoaren aurka. [Ikusi Instagramen](#).
Genero-berdintasunaren aldeko erakundea. [AHIGE](#).
Nuevas.masculinidades_. [Ikusi Instagramen](#).
#Mikelgomezz [#sintabushow-en](#)
Eta beste talde asko; identifikatu zein dagoen zure inguruan.

Sareetako aktibismoaren beste adibide batzuk:

Generoaren ikusmolde soziala eta kulturala deseraikitze lanean diharduten gazteak.
Interred Catalunya. [Ikusi Youtuben](#).

IES Félix de Azarako asanblada feminista. [Ikusi Youtuben](#)

Love Yourself feat Pilares Feministas. Nerabearoa eta gorputzak. [Ikusi Youtuben](#).

Youtuberren proiektuak berdintasunaren

○ [¿Por qué yo no puedo ser mecánica?](#)

○ [Es tu vida, manéjala tú.](#)



8.2.2. Klima-aldaketaren aurkako erreferenteak

Klima aldaketa lantzen duten Tiktokerrak:

@cumbre.ambiente: [¿Qué tienen en común...?](#)
 @dlshad105: [Estas son las formas...](#)
 @salmagomezp: [Nuestra última y pequeña oportunidad...](#)

Fridays for future (bilatu zure inguruan):

- [En Barcelona.](#)
- [En Euskal Herria.](#)
- [En Madrid.](#)
- [En Valencia.](#)

Erreferente handiak:

Greta Thunberg: [#gretathunberg](#) Suediako ingurumenaren aldeko aktibista da, eta berotze globalaren arriskueta jartzen du arreta. Thunbergek gazte pila bat inspiratu ditu, eta fenomeno «Greta Thunberg efektua» gisa da ezaguna.

Hope! [Vídeos para el cambio:](#) Etengabe edukia igotzen duen influencera. Bertan, klima-aldaketa eta horren ondorioak azaltzen ditu.


Marta Canga: Moda jasangarriaren aldeko defendatzaile eta influencera da. Marta konzientziatuta dago herritarrok gure planeta mundu hobea egiten saiatzeko dugun erantzukizunarekin.

Extinction Rebellion: [Rebelión Global](#) nazioarteko eta politikoki partidurik ez duen mugimendua da, deszentralizatu; indarkeriarik gabeko ekintza zuzena eta desobediencia zibila erabiltzen ditu gobernuak limurtzeko, justiziaz aritu daitezen klima eta ekologia larrialdiaren alde.

Javier Peña: [Hope Revolution](#) proiektu honen helburua da klimari eta ekologiari buruzko jakintza zientifikoa erraztea, edonork ulertzeko moduko bideo zehatzen bidez.

Mariana Matija: Horrela definitzen du bere burua: Lur planetaren zaleen klubeko burua. Eko jarrera du bizitzaren aurrean; Instagramen aritzen da; podcast batean parte hartzen du, eta ilustrazio zoragarriak egiten ditu.

Carlota Bruna Animalien eta ingurumenaren aldeko aktibista da. Carlotak klima-aldaketaren inguruko hausnarketak eta kezkak argitaratu ohi ditu.



8.3. Jardunbide egokiak

- **Save Haters:** Arrazismoaren, xenofobiaren, misoginiaren, homofobiaren eta eduki faltsuaren hedatzearen aurkako tresnak, informazioa, bideoak eta estekak. Lagun du salbatzen.
- **El contestador:** Txio ergelei, erantzun argiak. Hainbat gairen inguruko gezurrei ematen die erantzuna.
- **Cibercorresponsales:** Haurren parte-hartzea sustatzen du Interneteko espazio seguru batean, eta, bertan, neska-mutilak dira beren errealitatearen bozgorailu. Prozesuak sortzen ditu informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez, haurren eskubideen ikuspegitik.
- **Orientaciones:** Interneten gorroto-diskurtsoari aurre egiteko eskuliburua, giza eskubideen hezkuntzaren bidez.
- **Kit Ciberactivista:** Eskuliburu sinple, atsegina eta zuzena. Sarean ekintzak egiteko ideiak, adibideak eta materialak biltzen ditu, eta aukera ematen du nor bere etxean, lanean, institutuan, sare sozialetan, webguneetan, eta abarretan Interneten erabilera egokia sustatzeko eta #navegaenpositivo mezua zabaltzeko.
- **Hate Blockers:** Sare sozialetako gorrotoa geldiarazi nahi duten gizarte-eragileak.
- **Enrédate sin machismo** Gazte eta nerabeen artean indarkeria matxista saihesteko proiektua, Tenerifeko Cabildoko berdintasun Unitateak sortutakoa. Hezkuntza edukia online eta offline.
- **Kanarietako Berdintasun Institutuko BALIABIDEEN GIDA.** Gizonezko nerabeekin lan egiten duten profesionalen maskulinitate ez-bortitzak lantzeko.



20 Gizarte-mobilizazioa ezagutzen

○ Helburuak:

Gure ingurua eraldatzeko ekintzak sustatzea, historian zehar gizartemobilizazioei eta politikari esker lortutako aldaketetan oinarrituta. Gizartemobilizazioa zer den eta hura gauzatzeko moduak ezagutzea.

○ Beharrezko baliabideak:

Paper handiak eta errotuladoreak, edo arbela. Gizartemobilizazioari buruzko aurkezpena. Aurkezpena testuinguru bakoitzeko ezaugarrietara moldatu edo egokitu daiteke.

○ Garapena:

[Presentación sobre la movilización social](#). Aipatutako aurkezpenaren bidez, gizarte-mobilizazioari buruzko azalpena eman dezakegu; zertarako balio duen eta giza eskubideak hobetzeko balio izan duten adibideak erabiliko ditugu.

Gogoratu aurkezpen hau azalpena emateko den arren galderak egin ditzakegula guztien artean edukia argitzeko. Aztertuko dugu gizartemobilizazio bakoitza zer taldetan edo testuingurutan izan daitekeen posible, eraginkorra edo aproposa.



30/45 MINUTU

21 Kontuz, zuri begira gaude!

○ Helburuak:

Hausnartzea kontsumitzen dugun arropak ingurumenean eta gizartean duen eragina.

○ Beharrezko baliabideak:

Baskula, kartulinak, errotuladoreak, arropen materialari buruzko taula, kalkulagailua eta boligrafoak.

○ Garapena:


1. Urratsa. Ikasleei eskatuko diegu ekartzeko etxetik bi jantzi. Klasea hainbat taldetan antolatuko dugu, ekarri duten jantzi-kopuruaren arabera. Talde bakoitzari eskatuko diegu hainbat jantzi hartzeko eta gelan zehar banatzeko. Taula bat emango diegu, eta bertan materialak agertuko dira (kotoia, artilea, poliesterra, elastanoa, lihoa, etab.), eta material bakoitzeko kantitate zehatz bat sortzeko zenbat ur-litro den beharrezkoa eta zenbat kilogramo CO2. Adibidez, 300 gramo kotoi egiteko, 6 kg CO2 eta 400 litro H2O erabiltzen dira.

2. Urratsa. Taldeei eskatuko diegu jantziak pisatzeko eta horien etiketak irakurtzeko. Jantzia osatzeko erabilitako materialen ehunekoa apuntatuko dute. Informazio horrekin eta taulekin, arropa ekoizteko beharrezkoa den CO2 kopurua eta ur litroak kalkulatu dituzte, hiruko erregela erabiliz.

350 g algo-	6 Kg CO2	350 g algo-	400 L H2O
175 g algo-	X	175 g algo-	X
350 g poliéster	11,7 Kg CO2	350 g poliéster	90 L H2O
175 g poliéster	X	175 g poliéster	X

Adibidez, elastikoa. Pisua: 350 g. Materiala: 50% kotoi, 50% poliester; 175 g kotoi, 175 g poliester. Kg CO2 orotara = 10,325 kg CO2 ;H2O litroak orotara = 285,83 H2O litro.

3. Urratsa. Ondoren, jantzi bakoitza non ekoitzi den aztertu beharko dute.



Zein lan-baldintza dituzte fabriketan lan egiten duten emakumeek? Zein lan-eskubide urratzen dira? Jantziaren ingurumen-inpaktua txikiagoa izango litzateke kontsumitzen den lekutik gertu egiten bada? Zenbat CO2 isurtzen da bere garraioan? Azken galdera honetarako aplikazio hau erabil daiteke:

Karbono-isuriaren kalkulagailua

4. Urratsa. Informazio horrekin guztiarekin, jantziak eta horien jatorrizko tokiak adieraziko dituzte horma-irudi batean, bai eta herrialdeko bizi-baldintzak eta horiek ekoizteko behar diren baliabideak ere.



1 / 1,5 ORDU

Iturria:

[Aprender a cuidar la vida. InteRed.](#)

22 Ideia-jasa eta talde ziberaktibista bat antolatzea.

Helburua:

- Talde ziberaktibista bat sortzea eta horren auto-antolaketa sustatzea.
- Gazteen ideiak zabaltzea.

Beharrezko baliabideak:

Pizarra, folios, boligraf0s

Garapena:

1. Urratsa. Taldeari galderak egingo dizkiogu, eztabaida antolatzen hasteko: Zer behar dugu ziberasktibista izateko? Lehenengo parte honen helburua da nolabaiteko haserrea sortaraztea. Gaur egungo komunikazioaren funtzionamenduari eta gazteek horretan duten paperari buruzko kritika egitea. Horren ostean, aldaketak egiteko ideiak proposatuko ditugu:

Nola funtzionatzen dute hedabideek? Gustuko dituzue? Gazteen iritzia kontuan hartzen al dute?

Gazteei buruzko zer irudi erakusten dute berrietan? Nola alda daiteke irudi hori?

Gazteek adierazpen-askatasuna eta gizartean parte hartzeko eskubidea dute; betetzen dela uste al duzu?

2. Urratsa. Ideia-jasa, sareetan landuko dituzten gaiak aukeratzeko. Kostatzen bazaie, gogaitzen dituen egoeraren bat gogoraraziko diegu: parkeen egoera, hezkuntzaren kalitatea, bai eta gida honetako gaiak ere (indarkeria matxista, klima-aldaketa...).

3. Urratsa. Talde ziberaktibisten jarduera antolatzea:

Nola funtzionatuko luke taldeak? Proposamena: bilerak hilero egitea, gai berriak proposatzeko eta banatzeko.

Nola erraztu lana? Proposamena: binaka egitea lehenengo edukiak, eta, ondoren, bikotez aldatzea.

Nola hedatuko dugu edukia? Zer sare sozialetan? Proposamena: hautatu edo pentsatu zer materialek lagun gaitzakeen, eta proposatu lagunek, familiak, auzokoak edo beste edonork irakurtzea nahiko genukeen edukia.

4. urratsa. Martxan jarriko dugu? Nor animatuko da? Saiatuko gara ahalik eta jende gehien anima dadin hilabete bateko proba egitera.



1 / 1,5 ORDU

Iturria: [Cibercorresponsales](#)

09

AMAIERA

Espero dugu gida honen edukia lagungarria izatea gazteen hezkuntzan garatzeko pentsamendu kritikoa eta Herritartasun Globalaren ikuspegia.

Proposamen hau “Ez ukatu” erakusketa birtualarekin batera osatzeko aukera izango duzu, www.negacionismos.intered.org.

Lan hau Toca Igualdad kanpainaren barnean dago. InteRedek 2019an argitaratu zuen, gure hezkuntza-komunitateak hezkidetza-praktikaren bidez indarkeria matxista saihesteko helburuarekin, zentzurik zabalenean (hezkuntza formala eta ez formala, hezitzaileak, gazteria, ikasleak, kargu instituzionalak, etab.). Gazteen botere eraldatzailean sinesten duen kanpainak da, eta helburu du hezitzaileok beren bizitzen eta elkarrekin bizi dugun errealitatearen aldaketaren protagonistak izaten laguntzea. InterReden uste dugu hezkidetza dela eraldaketa soziala eta globala ahalbidetzen duen hezkuntza-proposamena, feminismoetan oinarrituta, hori baita edozein eraldaketa sozialaren pedagogia, apustu politikoa eta erreferentzia-marko nagusia.

Kanpainako bideoak eta bestelako hezkuntza-baliabideak
[Toca Igualdad webgunean daude.](#)



ERANSKINAK

1. ERANSKINAK: ADIBIDEEN FITXAK

1.- ADIBIDEA

ADIERAZPENA: “Ezin dugu ontzat eman zuzendariak dioena, hari ez baitio bere lanean eragiten.”

ERANTZUNA: “Itxura horrekin ez dut uste ganorako ezer esan dezakezunik.”
Ikasleentzako galderak:

- Zer iruditzen zaizue erantzun hori? Egokia al da? Erantzunak adierazpenarekin zerikusirik al du? Pertsona baten itxurak ondorio horretara eraman gaitzake? Noizbait gertatu zaizue edo ikusi duzue horrelakorik gertatu zaion norbait?

Irakasleentzako oharrak: Zer gertatzen ari den argitu behar da; adierazpena egin duen pertsonaren aurka egin da, eta ez argudioaren beraren aurka. Ez da modu koherentean argudiatzen ari planteatutako gaiaren inguruan (zuzendariak dioena bidezkoa den), eta aurreiritziak erabiltzen dira esandakoari aurka egiteko (pertsona baten itxura).

2.- ADIBIDEA

ADIERAZPENA: «Ez zait egokia iruditzen ikastetxeetan jazarpen-egoerei ematen zaien erantzuna.»

ERANTZUNA: “Eskuliburuek hala aholkatzen dute; ikastetxe guztietan berdin egiten dute.”

Ikasleentzako galderak: Zer iruditzen zaizue erantzuna? Egokia al da? Jende askok gauza bera egiteak esan nahi du modu hori egokia dela? Bilatu adibideak.

Irakasleentzako oharrak: Gehien erabiltzen den metodoa izateak ez du esan nahi egokiena dela.

Adibideak: Mende askotan zehar gizartearen zati handi batek uste zuen emakumeek ez luketela bozkatu beharko. Pertsona asko zeuden nazismoaren eta Hitlerren alde.

3.- ADIBIDEA

Eraikin bateko auzokideen arteko bilera batean, honakoa planteatzen dute:

“Gatazka honen harira bi gauza egin ditzakegu: edo auzokidea salatu ez ordaintzeagatik, edo mehatxu egin haren zorrak ordain ditzan.”



Ikasleentzako galderak:

Zer iruditzen zaizkizue planteatzen diren aukerak? Beste konponbide batzuk aurkitu beharko genituzke? Zer motatakoak?

Irakasleentzako oharrak: Arazoarentzako bi aukera ematen dira; bakarrak direla dirudi, eta, beste batzuk baldin badaude, ez dira aipatzen. Bi aukera horiek muturreko bi ikuspuntu dira, eta igorleak harentzat onuragarrienak diren aukeren berri ematen dio hartzaileari. Bi parteen interesa bilatzen duten beste aukera batzuk pentsatuko ditugu; salaketa ipintzeak edo mehatxua egiteak ez du esan nahi beste pertsonak derrigorrez ordainduko duela, baina, elkarrekin hitz egiten badugu eta ordaindu beharrekoa negoziatzen badugu, guztiek irabaziko dute.

4.- ADIBIDEA

Auzokide batek honakoa esan dio beste auzokide bati:

“Atzo ezagutzen ez nuen mutil batekin egin nuen topo eskaileretan; ezezagunak etengabe ari dira eraikinean sartzen, eta beldur naiz ez ote diguten lapurtuko edo zerbait okerragoa egingo. Segurtasunfalta handia dago eraikin honetan”

Ikasleentzako galderak:

Zer iruditzen zaizue iruzkina? Egokia edo gehiegizkoa da? Zergatik? Zer galdetuko zenikete auzokideari?

Irakasleentzako oharrak: Adibide jakin batzuetan oinarritzen den baieztapena da, horren aldeko froga gutxirekin. Hortik abiatuta, egoera muturrera eramaten da, eta ateratako ondorioa ez dator errealitatearekin bat.

Zenbat pertsonarekin topatu ohi zara eskaileretan? Zenbat kasutan oinarritzen zara ondorio hori ateratzeko? Gure iritziak egiaztatu gabeko zurrumurruetan oinarritzen al ditugu?



2. ERANSKINA: ADIERAZPEN-ASKATASUNEN DINAMIKA

Iturria: Gida laburra: Orientaciones – Interneten gorroto-diskurtsoari aurre egiteko laguntza, giza eskubideen hezkuntzaren bidez. 2019. Injuve eta EK.

KASUEN IKERKETA:

1. “Gure nazioa eskatu” izeneko talde batek “tradiziozko balioak” garatzen dituen webgune bat ireki du. Iruzkin asko arrazistak dira. Webgunean iruzkin asko idazten dira, eta eztabaida handia ari da gertatzen. Eztabaidan hitz bortitzak erabiltzen dira, baina komunitate handi batek webgunearen ideologia arrazistaren kontra egiten ditu iruzkinak.

- Orri-mota horiek Internetetik kendu beharko lirateke? Hala uste baduzu, noiz? Zergatik?
- Ezetz uste baduzu, zer gehiago egin daiteke?

2. Nikolayk, politikari batek, bere webgune pertsonala erabiltzen du barrutiko komunitate ijito bat joanarazteko deialdia egiteko. Dei horren ondorioz, ijitoen komunitatearen aurkako erasoak daude herrialde osoan. Hedabideen parte handi bat hasi da kontatzen ijitoek egindako krimenen inguruko berriak, baina ez da horien aurka egindako krimenen berri ematen.

- Orri-mota horiek Internetetik kendu beharko lirateke? Hala uste baduzu, noiz? Zergatik?
- Ezetz uste baduzu, zer gehiago egin daiteke?

3. Bere blog pertsonalean, Roryk politikari ezagun baten marrazkia igo du; politikariak behatzetatik odola dario eta inguruan hilotzak ditu. Jende askok egiten ditu iruzkinak; gehienak, marrazkiaren alde.

- Orri-mota horiek Internetetik kendu beharko lirateke? Hala uste baduzu, noiz? Zergatik?
- Ezetz uste baduzu, zer gehiago egin daiteke?

4. Ellak, profil publiko baten bitartez, Internetera bideo bat igotzen du, desgaitasuna duten pertsonen barre eginez eta esanez izaki “estralurtarrak” eta ezgaiak direla. Orrialdeko estatistikaren arabera, oso jende gutxi ikusi du bideoa, eta ez dago iruzkinik.

- Orri-mota horiek Internetetik kendu beharko lirateke? Hala uste baduzu, noiz? Zergatik?
- Ezetz uste baduzu, zer gehiago egin daiteke?

5. Kazetari batek 4. adibideko bideoa ikusi du, eta Ellaren profila desaktibatzearen aldeko kanpaina bat sortu du. Ondorioz, milaka pertsonen ikusten dute bideoa. Jendeak “munduko bideorik onena” “desgaitasuna duten pertsonekin errealistak izaten hasi beharko ginatekeela” eta mota horretako iruzkinak egiten ditu.

- Orri-mota horiek Internetetik kendu beharko lirateke? Hala uste baduzu, noiz? Zergatik?
- Ezetz uste baduzu, zer gehiago egin daiteke?

6. Dittak, emakume famatu batek, Interneteko orrialde batean artikulua bat argitaratu du, esateko emakume transexualak “gizartearen kontrako eraso” direla. Beste norbaitek orrialde berri bat sortzen du Dittaren bizitza pertsonalari buruzko informazioarekin, hura “lasai dadin”. Dittak aurkako ehundaka mezu eta txio jaso ditu. Batzuetan mehatxatu ere egin dute.

- Orri-mota horiek Internetetik kendu beharko lirateke? Hala uste baduzu, noiz? Zergatik?
- Ezetz uste baduzu, zer gehiago egin daiteke?

